

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian XVI-XIX. mendeen arteko Nafarroako justizia auzibide ugari daude. Gaztelaniaz egonik ere, bakanka euskarazko pasarte laburrak ere badituzte, lekukoek galdeketetan esandakoak. Lan honetan XVI. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan —horietako bi orain arte ezezagunak— agertzen diren euskarazko lekukotasunak aztertu ditugu hizkuntzalaritza eta dialektologia historikoaren ikuspegitik. Horietatik abiatuta, horrelako testuek euskararen historiarako dakarten aberastasuna, interesa eta fidagarritasuna ere iruzkindu ditugu.

Giltza-Hitzak: Euskara. XVI. mendea. Hizkuntzalaritza historikoa. Dialektologia. Sorginkeria. Justizia auzibideak. Nafarroa.

En el Archivo Real y General de Navarra hay un gran número de procesos judiciales registrados entre los siglos XVI y XIX. Si bien todos ellos están escritos en castellano, algunos contienen breves fragmentos en euskera, correspondientes a las declaraciones efectuadas por los testigos en los interrogatorios. En este trabajo hemos analizado desde el punto de vista de la lingüística y dialectología histórica, los testimonios expresados en euskera que aparecen en tres procesos por brujería del siglo XVI —dos de los cuales eran desconocidos hasta ahora—. Partiendo de dichos testimonios, comentamos también la riqueza, interés y fiabilidad que aportan dichos testimonios a la historia de la lengua vasca.

Palabras Clave: Euskara. Siglo XVI. Lingüística histórica. Dialectología. Brujería. Procesos judiciales. Navarra.

L'Archivo Royal et Général de Navarre conserve une longue série de procès judiciaires tenus entre les XVIe et XIXe siècles. Les documents sont tous rédigés en espagnol, mais certains contiennent des brefs fragments en langue basque, pour transcrire les déclarations effectuées par les témoins lors des interrogatoires. Cette étude porte sur l'analyse du point de vue de la linguistique et la dialectologie historique, des témoignages en basque recueillis lors de trois procès en sorcellerie du XVIe siècle, dont deux étaient jusqu'à présent restés inconnus. Sur cette base, l'auteur commente la richesse, l'intérêt et la fiabilité apportés par ces témoignages à l'histoire de la langue basque.

Mots-Clés : Basque. XVIe siècle. Linguistique historique. Dialectologie. Sorcellerie. Procès judiciaires. Navarre.

Orye, lagunac.

Euskara nafarraren aztarnak XVI. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan

(*Orye, lagunac.* Traces of
Navarrese Basque in three
sorcery judicial processes
from the 16th century)

Santazilia, Ekaitz

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)
Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila
Arrosadiko campusa z/g. 31006 Iruñea
ekaitz.santazilia@unavarra.es

1. Sarrera¹

Testu administratibo historikoak, eta bereziki epaiketek eragindako dokumentazioa, euskal testu zaharren corpusa hedatzeko iturri ere izan daitezke, erdaraz idatziriko testu horiek zeharka euskarazko pasarteak ere jasotzen baitituzte, nahi baino gutxiagotan bada ere. Mitxelenaren (*TAV*) eta Sarasolaren (*ConTAV*) bildumek agerian utzi zuten hori, lehenago zenbaitek han-hemenka argitaratutako zenbait testu sistematikoki bildu eta aztertu zituztenean, beste eite bateko testu historikoekin batera. Batze lan horretan mugarri dira, orobat, Trebiñoren (2001) liburua edo Madariagarena (2014), baina Nafarroari zuzenean dagokionez, ezin ahaztu dugu Maioraren (2011) ekarpena. Irizpide, prozedura eta metodologia gora-behera (cf. honetat *Santazilia 2015: 109-111*), Maioraren lana Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (NEAN hemendik aurrera) gordetako epaiketek mendez mendeko eragin duten dokumentazioan, justizia-uzibideetan, ordu luzez bila eta bila aritu izanaren emaitza da; izan ere, euskarazko pasarteak aurkitzeko, testuak banaka hartu eta goitik behera miatzea baizik ez dago, frankotan arrakasta handirik gabe, gainera.

NEANen gordetako XVI. mendeko justizia-uzibideetan txertaturik ageri diren euskarazko testuen ganean prestatzen ari garen artikulu sortatik lehena da hau. Peio J. Monteanori zor diot kronologiari so euskararen garai arkaikoan (Lakarra, 1997: § 7, Gorrotxategi & Lakarra, 2001: § 7) kokatu beharreko testuon berri eduki izana: berak egin zuen lehen miaketa lana eta berak idoki zituen horietatik euskarazko testu gehienak. Bihoakio nire esker ona. Artikulu honetarako hatutaturikoak

1. Lan honek MINECOk diruz hornitutako *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología* ikerketa proiektuaren sostengua du (FFI2016-76032-P). Bestalde, UPV/EHUko Euskararen Historia eta Hizkuntzalaritza Historiko-Konparatua (GIC 10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatuaren barnean kokatzen da, Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropearrek eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen baitan. Eskerrak, orobat, Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboaren Katedrari eta Aziti Bihia elkarteari, baita Urtzi Reguerori, Julen Manterolari, Peio Monteanori, Patxi Salaberri Zaratiegiri, Eneko Zuloagari eta R/IEveko erreibisatzaile anonimoei ere, lan honen edukiak fintzeko eta aberasteko emandako laguntzagatik, eta Idoia Lazkaroni, irudiekien emandako laguntzagatik.

sorginkeriarekin lotutako hiru auzibide dira, eta horietan agertutako euskal pasarteak ditugu aztergai². Hiru auzibideetarik lehena, Anozibarkoa, aski ezaguna da sorginkeria ikertu dutenen artean, baina dauzkan euskarazko testuak, gero azalduko dugunez, oker transkribaturik eman izan dira; gainera, ezezagunak ziren beste zenbait pasarte ere aurkitu ditugu. Zigako auzibidea, bigarrena, zeharkako iturriei esker baizik ez zen ezagutzen, eta galdurik egon ondoren, berriki agertu da. Azkenik, Orokietakoa, guk dakigula, osoki ezezaguna izan da ikertzaileentzat orain arte. Zer esanik ez dago, ezezagunak diren aldetik, Zigako eta Orokietako auzibideak biziki interesgarriak direla alderdi antropologiko edo historikotik, baina guk hizkuntzari baizik ez diogu oratuko: sorginkeriaren ikertzaileen eskutan, hartara, horiei beste ikuspegi batetik inguratzea.

2. Ohar metodologiko zenbait

2.1. Auzibideak eta justizia XVI. mendeko Nafarroan

NEANek Nafarroa osoko 350.000 epaiketa-auzibide gordetzen ditu, 1496 eta 1836 urteen bitartekoak, eta horietatik 100.000tik gora XVI. mendeari dagozkio (Monteano 2017: 17, 48-49). Bada, beraz, hizkuntzaren alderditik bakarrik, non bilatu.

Garrantzitsua da XVI. mendeko epaile, eskribau eta abokatuen errealitate soziolinguistikoa eta lan egiteko modua ongi ezagutzea, horrek testuek ageri duten hizkeran eraginik izan baitezake. Abokatuek eta epaileek atzerriko unibertsitateetan ikasten zuten, eta eskribauek, aldiz, Nafarroan berean, beste eskribau baten egoitzan, eta maiz beren familian bertan, ofiziokoak izaten baitziren ardura. Eskribauak 25 bat urterekin bilakatzen ziren errege-eskribau edo notario, azterketa bat egin eta zenbait meritu agertu ondoren. Nafarrek bakarrik zuten karguok eskuratzeko aukera, baina XVI. mendeak aurrera egin ahala, Gaztelatikoak ere agertzen hasi ziren, nafarren gogoz kontra (Monteano 2017: 53-54)³.

Monteanok (2017: 48-50) berriki era argigarrian azaldu du justiziaren lan egiteko modua. XVI. mendean lekukoek ez ohi zuten epailearen aurrean deklaratzeko, eta auzia Iruñetik landakoa zenean, abokatu bat eta eskribau bat, edo azkena bakarrik, bertaratzen ziren zegoen herrira, aldeztu aurretik prestatutako galderen erantzunak lekukoei jasotzera. Galdeketa egileak ostatu non zuen hartua, bertara joan behar zuen lekukoak deklaratzera. Gelan lekukoa eta galderen egilea edo egileak (abokatu eta eskribau) baizik ez ziren egoten ahal, eta sekretupean, beste lekukorik gabe, egiten zen itaunketa. Galderei erantzun ondoren galdeketa egileak lekukoari dena irakurri, eta horrek bermea ematen zion. Dokumentuaren edukia (hots, deklarazioak) sekretupekoak baitziren, inork ikus ez zitzaizkion, ongi itxi eta Iruñera eramaten zitzaizkion epaileari.

2. Lana nolabait mugatu beharrez, onomastika kontuak (antroponimia, toponimia, oikonimia...) gure azterketatik kanpo gelditu dira, alor horretan datu aberatsak dakartzaten arren.

3. Euskararen eremu osoko errealitateaz ondoko mendeetan, cf. Madariaga (2014).

1594ko ordenantza batek lehenagoko denboretatik galdeketetan ohikoak ziren prozedurak jaso zituen idatziz, euskarazko zatien fidagarritasunari so oso esanguratsuak direnak. Monteanok (2017: 55) berak azaltzen duenez,

Si el testigo sabe hablar castellano, se debe transcribir sus mismas palabras. Pero si el testigo solo sabe hablar en euskera, se traducirán sus palabras al castellano «con toda fidelidad y propiedad». Es más, si fuese necesario o importante, se transcribirán «las mismas palabras formales que dijeron los vascongados en vascuence, sin añadir ni quitar a lo que dijeron, ni glosar sus palabras». Es decir, sin añadir, quitar o explicar cosa alguna.

Alderdi soziolinguistikotik, zinez garrantzitsua da esatea eskribauek euskaraz jakin behar zutela, legeak itzultzaileak baliatzea debekatzen zuela⁴, eta are Nafarroan egiten ziren hiru edo lau euskara motak ere ezagutu behar zituztela. Oso gutxitan baliatu ziren itzultzaileak, eta halakoetan, ez eskribauek euskaraz ez zekitelako, tokiko hizkera berezia zelako baizik, Zaraitzun edo Erronkaribarren kasu (Monteano 2017: 51-52, 58-59).

Bestalde, 1562tik aurrera, justizia sistemako kargu guztiek, Errege Kontseiluko epaileetatik hasi eta eskribauetara, Iruñean bizi behar zuten. Horrekin batera, txanda bakarra zegoen erresuma osorako; hau da, Nafarroa ez zegoen hizkuntzaren arabera banaturik, eta eskribauek, zeinahi zela zekiten hizkuntza, erresuma osoan egin zezaketen beren lana (Monteano 2017: 57 hh.). Ondorioz, Nafarroako eremu erdaldunetik etorritakoek, prestakuntza hirian jaso behar zutela kontuan izanda eta ondoren, kargua hartuta, Iruñean bizi behar zutela dakigunez gero, euskara ikasten zuten hain segur, beharra baitzuten. Bestela, txanda bakarraren ondorioz, euskaldunak eremu osoan ari zitezkeen, eta euskaraz ez zekitenek, aitzitik, debeku zuten orduan aski zabala zen eremu euskalduneari aritzea (Monteano 2017: 63-4). Lan egiteko aukera gutxiago, soldata ere apalago.

2.2. Euskarazko lekukotasunen garrantzia

Arestian ikusi dugun bezala, auzibideok erdaraz egoten dira idatzirik; haatik, Nafarroako eremu euskalduneari galdeketak euskaraz egiten zitzaizkien lekukoei, eta hori ez zen eskribauentzako behaztopa-harri. Zenbaitetan galdeketa baliatutako hizkuntzaren erreferentziarik batere ez dago, dudarik gabe euskaraz aritzea ohikoa izanik, ez baitzen hori agerian esateko arrazoirik; beste batzuetan eskribauak galdeketa euskaraz egin zuela aitortzen du, transkripzioa gaztelaniara bihurturik eman bazuen ere, eta beste batzuetan, gutxienetan, euskaraz egindako aitortza horiek gaztelaniaraturik egonik ere, hitz edo pasarte labur batzuk jatorrizko hizkuntzan, euskaraz, eman zituzten eskribauek, aurreko atalean agerian gelditu den bezala. Argi geldi dadila, edonola ere, galdeketa osoa egiten zela euskaraz, eta pasarte labur horiek ez zirela lekukoak erdarazko jardunean tarteka txertatutakoak; osoki euskaraz egindako galdeketatik, eskribauak jatorrizko hizkuntzan eman nahi izan zituen bakarrak baizik.

4. Gaztelan, eta beraz, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, ez bide zen hala, eta eskribauek maiz jotzen zuten itzultzaileengana.

Euskarazko pasarte horiek bi eratako garrantzia dute: soziologikoa eta linguistikoa. Lehenaz denaz bezainbatean, euskararen bizitasunari buruzko informazioa ematen digute: hizkuntzaren muga geografikoak garaian garai finkatzeko informazioa dakarte, eta hitzunen beren egoera sozioekonomikoari buruz ere aski datu ematen da. Bestalde, hizkuntzaren *barne* historiarako ere garrantzitsuak dira. Batetik, garaian ahoz ekoiztako pasarteak dira, xede literariorik gabeak, eta beraz, sasoi hartan kalean entzun zitekeen euskaratik hurbilago daude, eta testu literarioetan kausitzen ohi ez diren formak ematen dituzte: hitanoko formak, irain eta biraoak, arkaismo eta berrikuntzak, ezohiko lexikoa... Hori gutxi ez, eta aztergai ditugunak XVI. mendean jasoak izanik, frankotan, pasarte horiek dira herri bateko eta garai horretako hizkeraz dugun testigantza bakarra, edo zaharrena.

2.3. Lekukotasunek ageri duten euskara eta iturrien fidagarritasuna

Euskarazko testuek lan filologikoa eta exegesia behar dute. Ongi irakurri behar dira, eskuizkribuak izanik kaligrafiak ekar ditzakeen oztopoak gaindituz eta eskribaukek egin zitzaizketen hutsak identifikatu eta zuzenduz, filologia zehatza baita geroko hizkuntzalaritza historikoaren oinarri ezin utzizkoa (Meillet 1925: 11). Horrekin batera, auzibidea osotasunean ikertu beharra ere agerian utzi behar da: frankotan, euskalariak euskarazko pasarteei baizik ez diete erreparatu izan, erdal testuari begiratu gabe. Hortik, pasarteak testuinguruan behar bezala ulertzeko arazoak heldu dira, eta bazter uzten da euskal testuaren ekoizlea nor den, nor eman zion eskribuari aditzera, eta zein eskribauk jaso zuen aztertzea, horiek denek testua kokatzeko orduan berekin ekar litzaketan ondorio (sozio)linguistikoa ere saihestu utziz. Lan honetan testuaren ekoizpenean eta transkripzioan esku hartzea izan duten pertsona guztiak eta, ahal izan denean, horien jatorria ere xeheki deskribatzen saiatu gara, testuaren kokapen geografikoan horrek leukakeen eraginari so (cf. honetaz Camino 2009: 313 hh.). Gainera, auzibideak goitik behera narerik miatzeari esker, euskarazko pasarte berriak ere agertu dira.

Ondoren, ezaugarri linguistikoei testua espazioan eta garaian kokatzen lagundu behar dute, hau da, ezaugarriak bestelako datu diakroniko eta dialektologikoekin erkatu behar dira⁵. Hemen badira metodologikoki kontuan hartu beharreko zenbait elementu. Testuek jaso ziren tokiko euskara agertzen dutela hartu dugu abiaburuko hipotesizat, baina horrek baditu bi arazo: batetik, euskarazko esaldien ekoizleak ez dira beti auziaren tokikoak, nahiz eta gehienetan hala den. Hori normalki erraz argi daiteke auzibideetan erdaraz heldu den informazioa begiratu. Bigarren arazoa, ordea, konpontzen zailagoa den neurrian, interesgarriagoa ere bada. Ikusi dugun moduan, ustez eskribaukek lekukoek esana hitzez hitz jaso eta itzuli bazuten ere, zenbateraino ageri den haiek zekiten edo zerabilten euskararen aztarna, ez da horren aise ebazten den kontua.

Monteanok (2017: 163 hh.) uste duenez, XVI. mendean Iruñeko euskarak, hirikoak, zukeen prestigioerik handiena Nafarroan, eta hura zatekeen orain aipatu

5. Cf. gisa horretako bi saio Santaziliaren (2015) eta Regueroren (2017) lanetan.

ditugun administrazioko langile horiek denek hirian mintzatu eta baliatzen zutena, eta are sortzez erdaldunak zirenek ofiziorako ikasten zuketena⁶. Legeak hala aginduta eskribauek lekukoek hitzak bere horretan jasotzen bazituzten ere, auzibideetako euskal pasarteetan Iruñeko euskara batu prestigiotsu horren zantzurik ere egotea ezin bazter daiteke gure aburuz (cf. Camino 2009: §§ 6., 7.6), eskribauek berek zerabiltena zatekeelako, eta lekukoek ere hura zuketelako prestigiozko aldaeratzat.

Hori horrela izanik ere, naski inoiz izan genezakeen tokian tokiko euskararen isla onena dira horrelako testuak, nola ekoitzi ziren ikusita, eta gainera, ongi dataturik eta kokaturik dauden neurrian, aingura-testutzat erabiltzeko aukera ematen dute (McIntosh et al. 1986, Ulibarri 2013). Schneiderrek (2003: 73) fidagarritasun eskala bat atondu zuen testuak ahozkotik zenbaterainoko hurbiltasuna ageri duten irudikatzeke, hainbat testu motatan oinarrituta. Ikus daitekeenez (cf. 1. taula), hierarkia horretan gorengo maila hartzen dute epaiketetako deklarazioek. Eskala hori testu zaharrei aplikatu die Reguerok (2017: 22 hh.), eta gu ere horri lotu gatzaizkio.

Ebidentzia negatiboekin, hau da, eremu horretan garai berriagoetan aurkitzen diren baina gure testuetan ageri ez diren horiekin, bi erataria jokatu dugu. Zenbaitetan agerian aipatu dugu eremu batean geroago ageri dena ments dela gure testuan, eta beste batzuetan, ez dugu iruzkinik egin, edo azaletik baizik ez. Dudarik ez da datu negatiboek hizkera bat sailkatzeko balio dezaketela (Camino 2009: 392-393), baina une honetan bederen, gure lekukotasunak urriegiak dira ondorio garbirik atera ahal izateko, eta ezaugarri bat ez kausitzeak ez baitu zuzenean esan nahi orduan ere erabiltzen ez zenik, arriskutsua da ebidentzia negatiboaren gaineko ondorioak ateratzea, batez ere horien kronologiaz eta distribuzio historiko zehatzaz asko ez dakigun kasuetan (Camino 2009: 317, § 19.5).

Labur esanda, azterketa tokian tokiko hizkera eta testuetan ageri dena alderatuz egin dugu, testuek tokiko euskara islatzen dutelakoan hein handi batean, baina ezin ditugu guztiz atzendu testu idatziek dituzten ezaugarri bereziak, eta epaiketan zehar ongi ulertu behar ziren neurrian⁷, erlatiboki diatopikoak izateko arriskua ere izan dezaketela (Camino 2009: 311 hh.). “Tokiko euskara” diogunean, alde batetik aldaera garaikidea dugu, eta bestetik bertako testu historikoak. Konparaketan datu garaikideak sartu izana metodologikoki ukronikotzat har dezake batek baino gehiagok, baina badira horretarako zenbait arrazoi. Batetik, frankotan lekuko testu historikoak falta dira, aztergai dugun garaitik hurbilago daudenak, eta ezinbestean jo behar da XX. eta XXI. mendeetako datuetara. Bestetik, datu garaikideak eta XVI. mendekoak alderatzeak hizkerak tokian toki izandako bilakaera diakronikoaren berri ematen digu. Azkenik, datu garaikideek —eta honetan, baita beste leku edo garaitakoek ere— testuen irakurketa zuzena egiten ari garela bermatzeko balio dute; hots, bertan dagoena ez dela eskribauaren akatsa, edo gurea.

6. Iruñeko euskararen nolakotasunaz, cf. orain Santazilia & Zuloaga (2018).

7. Garrantzitsua da testuen hartzaileak zein ziren jakitea. Eskribauek jasotako testigantza hori epaiketan ahoz irakurtzen zuen horren enkargua zuen kontalari batek, eta kontalariak esandakoak, besteak beste, epaileak eta abokatuek ulertu behar zituzten.

Hor amaitzen da datu garaikideen balioa: XVI. mendekoekin bat egiten dutenean ere ez daiteke automatikoki ziurta leku batean ezaugarriak lau mendez iraun duela, tarteko lekukotasunik ez badugu; eta datuak bat ez etortzea ez da, bistan dena, bi hizkerak leku berekoak ezin izan daitezkeela esateko argudio, isoglosak ez baitira denboran estatikoak.

1. taula. Testu moten kategorizazioa, hizketatik duten hurbiltasunaren arabera (Schneider 2003: 73, itzulpena nirea)

Kategoria	Hizketaldiaren egiantzekotasuna	Hiztuna eta idazlea	Denbora tarte ekoizpenetik-jasotzera	Testu ereduak
Berehala jasoa	erreal, bakarra	desberdinak	berehalakoa	elkarrizketa transkribatuak, auzietako grabaketak, transkripzioak
Ondoren jasoa	erreal, bakarra	desberdinak	gerokoa	esklabu ohien narrazioak
Pentsatua	hipotetikoa, bakarra	berbera	berehalakoa	gutunak, egunerokoak
Behatua	normalki erreal, bakarra	desberdinak	gerokoa	iruzkinak
Asmatua	hipotetikoa, zehaztugabea	–	zehaztugabea	literatura dialekttoa

2.4. Transkripzio arauak

Testuak, garai bertsukoak hirurak, ezagunenetik ezezagunenera antolatu ditugu: Anozibarkoa lehenik, Zigakoa gero, eta Oroketakoa azkenik. Izenburuan auzibidea zein herritan gertatu zen eman dugu, eta urtea gero. Parentesi artean NEANen auzibideak duen katalogo-zenbakia eman da.

Euskarazko pasarteak ongi testuingururatzeko, auziaren nondik norakoak azaldu ditugu, lekukoei eta galdeketen egileei buruzko informazioa eta datak ahal bezain xeheki emanez. Euskal testuak paragrafo beregainetan eta zenbaturik heldu dira, eta ondoren, parentesi artean, auzibideko zein orri dagokien adierazi da, baita aurkian (r) edo ginberrean (v) bilatu behar diren ere. Gero, hiru izartxoren bidez bereizirik, hizkuntza azterketari lotu gataizkio.

Hala euskarazko nola gaztelaniazko pasarteetan puntuazio marken eta letra larrien erabilera sistematikoki gaurkotu ditugu, horri oharretan erreferentzia zuzenik egin gabe. Orobat egin da hitzen banaketarekin ere. Karaktererik gehitu behar izan dugunean edo laburdurak hedatzean, taketak baliatu ditugu. Ohar paleogra-

fikoak, zalantzak edo beste autoreren batek egindako irakurketak oin-oharretan azaldu ditugu, baita euskal pasarteen itzupenak ere, auzibideetan bertan eskaini direnean.

Transkripzioetan grafia paleografikoa baliatu dugu, baina badira salbuespen batzuk: ese luzeak arrunt bilakatu ditugu, eta <j> grafiak izaera bokalikoa duenean, hitz bukaeran eta diptongo ez denean kasu, <i> eman dugu. <u> eta <v>-ren arteko txandaketa ere gaur egungo moldera bihurtu dugu, lehena bokalerako eta bigarrena kontsonanterako utziaz. Azkenik, izen bereziak bateratu eta grafia gaurkotuan eskaini dira.

3. Testuak

3.1. Anozibar, 1576. (NEAN 69853)

XVI eta XVII. mendeetan, baita lehenago ere, sorginkeria egitea egotzita, zigortutako jende ugari izan zen. Hori bera da auzibide honen eta hurrengo bien abiaburua. Florentzio Idoate dugu Nafarroako sorginkeriaren ikerketan aitzindari: haatik, euskarazko pasarteen azterketa ez zen bere helburu gorena eta askotan berak az-

tertutako auzibideetan ageri diren euskarazko zatiak oker transkribatu zituen, edo zuzenean, eman ez. Iturrira jotzea beti da on, eta duela zenbait hamarkada berak ezagutzero emandako auzibide horien begirada geldoagotik idoki daiteke euskarazko datu berriak.

Mintzagai dugun auzibidea, toponimia aztertu nahi duenarendako ere aberatsa, horren adibide dugu. Sorginkeria aztertu dutenen artean aski ezaguna da Idoatez geroztik, latzak eta xehekiro deskribatuak baitira hor gertatutakoak. Idoatek berak frankotan aipatu zuen hainbat lanetan, baina, gero erakutsiko dugunez, euskarazko pasarteak ez zituen eman, edo oker eman zituen. Gainera, Idoatek behin ere aipatu ez zuenik ere bada⁸.



1. irudia. Anozibar. Argazkia: Idoia Lazkano.

8. Sarasolak (*ConTAV* § 5.2.4) Idoatek 1978ko sorginkeriari buruzko liburuan eta bestetan oker emandako euskal testuak zuzendu eta iruzkindu zituen, baina iturrira jo gabe. Harrigarriki, ez ditu auzibide honetakoak aipatu eta, jakina, iturrira jota aurkitu ditugun berriak ere ezin izan zituen harrapatu.

Auzibide honetako itaunketa franko euskaraz egin direla garbi aitortzen da, baina ohi bezala, behar-beharrezkoa denean baizik ez dira ematen euskarazko hitzak. Pedro Etsain doktoreak, Anozibar eta Ziaurrizko apaizak, jarri zuen salaketa Mariatxo edo Xandua izenez ere ezaguna zen herriko palazioko alaba baten, Maria Juan Anozibarren eta Migel Zubiriren (edo Xubiritoren) kontra, sorginkeriatan aritzeagatik. Hainbat dira egotzi zitzaizkien maltzurkeriak, baina salatuek denak ukatu zituzten.

Egia bide da, dena dela, salatutako Mari Joan Anozibarrek, haurra zenean, esperientzia bitxi samarra izan zuela. 1575ean, abuztuak 28 zituela, Ozkoidi batxilerrak, Juan Medrano eskribauak⁹ eta Etsain apaizak egindako galdeketan, hirurogei urtetik gora zen Mari Joane berak kontatu zuenez, txikitan zenbaitetan ez zitekeen mezara joan, dardarizoak eta gorpuz-ikarak izaten zituelako, konortea galtzeraino. Gainera, mendira egurra egitera joaten zenean, kapusai edo zamar beltzez jantzitako gizon bat agertzen zitzaion bidera. Deabrua omen, eta ezkerreko eskua hartuta, zera esaten zion neskari:

(1) Enea ayz. (16r)¹⁰

Pasarte hori bera eta beste bat errepikatu zuen Mari Joane, ordurako Iruñean preso, Guerrero, Liedena, Villagomez eta Atondo Gorte Nagusiko alkateen aurrean 1575eko abuztuaren 29an. Txikitan gizon gaizto eta ilun bat agertzen zitzaiola, eta alditxartzen zuela. Hala ziotson neskatoari:

(2) Ene[a] ayz. (6r)

eta beste batzuetan, aldiz,

(3) Enetaco bear dun. (6v)¹¹

Egotzitako gaitz guztiak ukatu zituzten akusatuek: Mari Joane txikitan izandakoa gaixotasuna zatekeela zioten, akelarre eta batzarrak egin izana gaitzetsi zuten, hegan egitearena bera sinesgaitza zela zioten, deabrua adoratzat flauta eta bandurriaz dantzan aritzea, eta Migel eta Martiniko Olague haurrak akelarrera eramatea, abereak akabatzea edo lurretan pozoia ematea, besteak beste, gezurtzat zituzten.

Azken horren harira, lekuko frankok emandako testigantzek salatzen dutenez, Anozibarko eremu askotako labore eta fruituak zimeldu ziren epe laburrean, baina salatuen lurrek ez bide zuten gaitzik pairatu. Lurrak sorgindu eta pozoindu zituztela leporatu zieten. Sano zeuden gari aleak belzturik eta hauts bilakaturik agertu ziren, eta bazuten gaitz horrentzat euskarazko izenik¹². Hamar urteko Migel Olaguek *yllaungia* (3v) deritzo, 50 urteko Fernando Ripak eta Juanes Olaguek *ylau-*

9. Pertsona berbera den jakiterik ez badugu ere, garai bertsuan bada Juan Medrano izeneko errege-eskribau bat jatorria Genevillan duena, eta NEANeko hainbat dokumentutan ageri dena.

10. «Que es dezir, mya eres» (16r).

11. «Que quiere dezir: Para mi as de ser» (6v).

12. Emandako deskribapenagatik, ematen du *Ustilago* edo *Claviceps* onddoaren gaitza izan daitekeela.

guia dute (20r eta 21v hurrenez hurren) eta azken horrek *ylaunguia* (42v) ere badu. *Ylaunguia* dakar bitan (44r, 44v) Martinikok ere; *yllaunguia* (48v) edo *yalunguia* (49r) Juanes Ripa Iribarrenek, eta <ll>-duna ere Maria Miguel Anozibarrrek (54v), Maria Larraintzarrek (50v) eta Salbador Makirriainek (52r). Denak dira anozibartarrak¹³.

Horretaz gain, 1575eko irailaren 19an Juan Ozkoidik Fernando Ripa anozibartarrari jaso zionez, mahastiek sasoi-z kanpo galdu zuten hostoa, eta mahats-lukuak lurrera erori. Maria Joanen iloba gaztetxoei, hurrenez hurren zazpi eta hamar urte zituzten Martin eta Migelikori, 1575ean zera entzun omen zien Ripak: Mari Joan, Zubiri eta Xandua beste sorgin batzuekin batera, akelarreetara bidean edo handik bueltan, lukuak hartu eta airera bota zituztela, honako hau ziotela:

(4) *Orye, lagunac.* (48r)¹⁴

Maria Juana 1575ko irailaren 26an torturatu zuten Iruñean Villagomez eta Atondo alkateen aurrean, eta orduan bakarrik aitortu zuen deabruarekin mintzatu izana. Behin baino gehiagotan zigortu arren, ez zuen beste inor salatu. 1575eko urriaren 14an eman zuten sententzia. Iruñeko karriketan barna, tronpeta eta pregoilaria lagun zamari gainean erabili ondoren, Takoneran garrotea emanen zioten eta ondoren gorpua erre, desagertu arte. Urriaren 25ean gauzatu zuten sententzia. Bide berari jarraiki zitzaizkion Xandua eta Zubiri ere, urte bereko abenduaren leheneko sententziak dioenez.

* * *

Bi aldiz agertzen dira, (1) eta (2)-n, deabruak Mari Joan bere jabetzakoa zela argi uzteko zerabiltzan hitzak¹⁵. Hitzen esalea pertsona bera izanik ere, leku-kotasun bakoitza ez zuten eskribau berberak jaso¹⁶. Artikuluari dagokionez (1)-en eta (2)-n dimorfismoa dagoela dirudi lehen begiratuan eta beraz, Mari Joanek deabruaren hitzak bi modutara eman zituela pentsa liteke, edo eskribauek bi modutara jaso. Gure ustez, baina, alde morfologikoa ez, baina grafiko hutsa dela pentsatzea da egokiena; izan ere, jatorrizkoan (7)-ko bi hitzak batera emanak dira, etenik gabe, eta bi <a> elkarren segidan ez idazteko, bakarra idatzi izana aukera sinesgarria da; ondorioz, artikulua berrezarri dugu.

Posesiboaren formaz denaz bezainbatean, *ene* dugu testuan, Linschmann-Aresti legea betez, ohiko forma orokorra XVI. mendeko testuetan euskararen eremu osoan. Hikako adizkiari dagokionez, ez dugu Nafarroako euskararen gaur egun ohi-

13. Idoatek *yllaurgia* irakurri zuen (3v)-n (Idoate 1978: 308) eta *ilarguia* edo *ilauguia* dakartza beste lan batean (Iribarren 1979 [1954]: 147), baina, gure ustez, kontsonante sudurkaria gardena da.

14. «Que es dezir: Tomad, compañeros» (48r).

15. Deabrua non sortua den eta dituzkeen ahalmen linguistikoak zein diren ezin jakinik, darabilen euskara Anozibarkotzat joko dugu ezinbestean.

16. Idoatek ez bide zituen (1)-eko hitzak ikusi, baina (2)-koak hainbat lanetan errepikatu zituen. *Eneaz* eman zuen (Idoate 1979 [1956]: I, 148 eta 2001 [1975]: 552) lanetan, *eheaiz* (Idoate 1978: 313)-n eta *encaiz* (Idoate 1990 [1967]: 17)-n, beraz ez zuen behin ere jatorrizkoan heldu dena zorrotz eman, hots, *eneayz*.

koa eta Sakanatik Erronkarira ezaguna den *y*-hasierarik¹⁷, bi bokal berdinen arteko testuinguru fonologikoak bereziki erraztu arren; edonola ere, Irizarrek (1992: 80) forma *y*-dunak eta gabeak jaso zituen XX. mendean ere bertan eta Reguerok (2017: 541-542) dakarren Nafarroako corpus historikoan, 1778ko Iturenera bi-daiatu behar dugu horrelako lehendabiziko forma aurkitzeko.

Gariaren gaitzari deitzeko erabilitako hitza iluna da lehen begiratuan. *OEhk* ez du aldaera jasotzen, baina Iribarrenek (1984 [1952]: 294, 319) *Vocabulario Navarro-n ilindia* eta *lindia* dakartza gaztelaniaz *tizón* deritzon gaitzaz mintzo, eta Retak (1976: 230) ere *El habla de la zona de Eslava* lanean *lindia* jasotzen du Iribarrenen lanetik¹⁸. Jatorri etimologikoa euskaran jartzen dute biek; *ilindi* hitzean hain zuzen. Hartara, euskaraz eta gaztelaniaz hitz bera dukegu eritasun horri deitzeko. *OEhra* jota (s.v. *ilinti*), <g> duen aldaera Ultzaman ageri dela dirudi *illengj* formapean, Anozibartik gertu beraz, eta esanahi horrekin gainera. Aezkoako *ilinge*-k eta Zaraitzuko *ilingu*-k ere <g> dute (Iribarren 1984 [1952]: 294). Testuan jasotzen diren aldaera guztien artean (hots, *ylauguia*, *ylaunguia*, *yllaunguia*; *yllaungia* eta *yalunguia*) bada alderik. Gure ustez *yalunguia*-k dakarren metatesiak errata izateko aukerak ditu, baita <g> ondoan <u> falta duen aldaerak. Bestalde, Rui araua indartsua zen Olaiabarko euskararen azken hiztunen ahotan, morfema eta hitz muga aise gainditzera, Caminok (2003b: 241-244) Artolari hartutako Olaiabarko eta Odietako lekukotasunei so, eta Etsaingo *Galbarioac* deritzon XIX. mendeko testuan ere eruz dugu (Goldaratz 1995), baina hemen *-ia* dugu beti, eta *lagunac* dugu beste pasarte batean; izan ere, ez dugu Rui araurik espero garai arkaikoko eta zaharreko testu nafarretan. Idoatek (1978: 308) behin dakarren bezala, testuan ere ageri den sudurkaria ments duen aldaera ezin daiteke zuzenean akastzat jo¹⁹, baina lekukotasun guztien artean bakarra da. Bestalde, <i> ondoko <I>-ren palatalizazioa dago adibide batzuetan, eta falta da besteetan. Nekez izan daiteke hori kontu grafikoa; aitzitik, Caminok (2003a: 451) eremu hau zuzenean aipatzen ez badu ere, inguruak palatalizazioduntzat ditu garai modernoetan, eta hori bera salatzen dute etnotestuek ere (cf., adibidez, Ziaurrizko testua, Artola 1992: 216-217 lanean). Irakurketan duda izpirik uzten ez duena *-au-* diptongoa da. *OEhk* Gipuzkoan baizik ez ditu kokatzen <a>-rekiko formak, *illanti* kasu, baina ez litzateke baztertzekoa *-a-* > *-au-* bilakabide bat (cf. hedadura zabaleko *handi* > *haundi* edo Nafarroako *anitz* > *aunitz*).

(3)-ko perpausari gagozkiola²⁰, *ene* dugu izenordain posesiboa berriz. *Destinatiboa -tako* da, ekialde zabalean ohi bezala. Zelaietak (2008: 135) gaur egun,

17. Apalauzak (2012: 349) eta Caminok (2013: 113) diotenez, Baztangoiza, Burunda neurri batean, Ergoiena, Larraungo ipar-mendebala, Leitza, Areso eta Araitz Betelu ezaugarri honen eremutik kanpo gelditzen dira egun.

18. Zierbidek (1979: 519) ere jaso ditu horiek.

19. Idoatek 3v folioan egin duen irakurketa dardarkiduna okerra da, ordea.

20. Beste behin, Idoate, edo argitaratze prozesuan autoreaz landara esku hartzea izan zutenak, ez ziren fin aritu: *erutako beardun* dago Idoateren (1978: 314) lan batean, *erutako beradun* (Idoate 1979 [1956]: 148)-n, eta *erutako veradun* (Idoate 1990 [1967]: 17)-n eta (Idoate 2001 [1975]: 552) lanetan.

-*tzat/-tako* isoglosaz mintzo, lehenaren barnean sartzen ditu Bortziriak, Goizueta eta Lapurdi gehiena, eta Zugarramurdin txandaketa dagoela dio. Datu historikoez ere hedadura zabala ematen diote -*tako* formari Nafarroan, berriz ere ipar-mendebala eremu horretatik at utziaz (Reguero 2017: 579), eta orobat Lapurdi (Camino 2013: 108).

Beste alde batetik, *behar* lokuzioak ez du *izan* partizipiorik aurretik. Horrelakoak Lapurdi eta Nafarroa Beherean ohikotzat ditu OEHk (s.v. *behar izan*), baina XVII. mende hasieran Lazarragak badu *enegaz bearco doçu* (1165r) bezalakorik, 1762ko Azkoitiko Gabon Sariek *gurequin bearco dezu* (24. orr) dute, eta Latasan Artolak *sanoa bear du* (Artola 2014: III, 61) jaso zuen 80ko hamarkadan; beraz, *izan* duke inoiz hedadura zabalagorik honek²¹.

[Partizipioa + *behar izan*] lokuzioak laguntzaile iragankorra edo iragangaitza eskatzen duen aspaldiko eztabaida da, eta OEHren aburuz, lehen testuetatik dugu txandaketa euskararen eremu osoan. Euskaraz **edun* bide da ohikoena denboran atzera egin ahala eta berranalisiaren ondorioz sortuak dirateke *izan* darabiltenak, nahiz eta Leizarragak, Axularrek eta Gazteluzarrek baduten *izan*-ekikorik, **edun*-dunekin batera (Mounole 2010: 153 hh.). Caminok (2013: 111) Lapurdi eta Nafarroa Garaia historikoki bereizten duen ezaugarritzat du hori, baina XX. mendeko datuak ez dira geografikoki oso gardenak, eta zerbait erakustekotan, Nafarroa Garaian *izan* duten perifrasiak berankorrak direla da (Mounole 2010: 156, 164). Oلابarko Olaitzen *in biaule* jaso zuen Artolak (2014: III, 55) 1981ean, eta Odietako Latasan 1982an *andik bear du bota* (Artola 2014: III, 62), baina *Peskaue etorri bear bazen* (Camino 2003b: 243) ere esan zuen hiztun berak.

Reguerori (2015: 591) jarraikiz, bestalde, *duzu* espero dugu eremu honetan, eta ez *dezu*, nahiz eta azken horiek badituzten, geroago, Mikelestorena baztandarrak eta Markotegi olloibartarrak, besteak beste, eta Etsainen XIX. mendeko *Galbarioac* lanean (Goldaratz 1995) ere badiren nasaiki. Gamindek (1985: I, 249 hh.) ere galdeketetan forma -e-dunak Nafarroako mendebaldean baizik ez zituen jaso, eta oso bakan.

Azkenik, (4)-ko *orye, lagunac* pasartea oharkabean pasa zen Idoateren begi aitzinetik, hizkuntzari so bereziki interesgarria izanik ere. Batetik, testuan berean heldu den itzulpenari begiratuta, *lagun* hitzaren adiera zaharra dugu hemen, hots, *compañero*, eta ez *amigo* (cf. *adiskide*). Bigarren adiera hori kausitzeko XIX. mende hondarrera joan beharko genuke, eta mendebaldera, OEHren arabera (s.v. *lagun*).

Edonola ere, dudarik gabe, ‘tomad’ esanahia duen adizkia da interesgarriena. Hastapenean irakurgaitza eta iluna badirudi ere, gure ustez hasieran herskaririk ez duten *ori(zu)* eta *orizu(t)e* bezalako aginterazko formekin lotu beharko genuke. Forma herskarigabeok aski hedatuak ageri dira. Poza urduñarrak 1587an *De la antigua lengua* lanaren 16r folioan, Sikoris pertsona izenaren euskal etimologia proposatzean, zera dio: “y assi para la entrega absoluta en posesion y pro-

21. Cf. Milia Lasturkoaren kantan, Mendebaldean, *Lastur-era bear doçu, Milia* (TAV § 3.1.5). Hemen, baina, *joan* aditza da ageri ez dena.

piedad, dezimos emphaticamente çuc ori, tomad vos” (*apud* Gorrotxategi 1987: 678). *OEH* begiratuta (s.v *ori*) jakin dezakegu Lazarragak badakarrela; Larramendik ere sartu zuela berean, eta Azkuek Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behere, Zaraitzu eta Erronkaribarkotzat duela bere hiztegian. Mendibururi eta beste predikatzaile zenbaiti ere irakur dakieke, Larramendiren eraginez agian, baina guk dakigula, Mendiburuk baizik ez dakar *orie*, Erronkaribarren *oriei* dena. *Orizu* eta *orizue* ugarigoak dira, eta badute, tarteka, bestelako esanahirik: edonola ere, hau da leku-kotasunik zaharrena, Pozarena baino lehenxeagokoa²². Formari dagokionez, *tori*-ren etimologian **to hori* badago (cf. Gorrotxategi 1987: 678), adizki honen gibelean erakusle hutsa geneukake. Erakusle bat aginterazko aditz bilakatzea ez da sarri gertatzen den gauza, eta horren atzean egon daiteke *ori* eta *orizu* polimorfismoaren arrazoia; bigarrena *ekarzu* bezalakoekiko analogiaz sortua dateke. Amaitzeko, ohar bedi pluralerako -e zaharra ageri dela erakusleari loturik²³.

3.2. Ziga, 1576. (NEAN z/g)



2. irudia. Ziga. Argazkia: Idoia Lazkano

22. Elortzi (1997: 483) irakurri diogunez, Artaxoako gaztelanian *orio* erabiltzen da txapa jokoan jokaldiarekin ados ez denak erdian dagoen sosa beretzat har dezan. Aztergai dugun *ori*-rekin lotura etimologikoa egon daitekeela iradokitzen du autoreak, xehetasun gehiagorik gabe. Agian artikulua hurbilarekiko erabilera egon liteke atzean: *ori* o.

23. Mendebaldean ere *erdue* (< *erdu-e*) bezalako forma bereziak ditugu inperatiboan Mogeletz, Astarloaz eta Añibarroz geroztik, “behar ez den” pluralgilearekin, analogiaz (cf. *OEH* s.v. *erdu*).

Sorginkeria auzi hau berriki agertu da NEANen Idoateren paperen artean, eta oraindik ez du katalogazio-zenbakirik esleituta. Idoatek *La Brujería en Navarra* lanean (1978: 122-123) azaletik baizik ez du aipatzen, eta badirudi orduan ez zuela jatorrizko dokumentua zuzenean ikusterik izan; Inkisizioaren beste dokumentu zenbaitetan aipatzen delako baizik ez zuela ezagutzen²⁴. Gauza bera gertatzen zaie Henningseni (2010 [1980]: 495) eta Caro Barojari (1995: 800). Hortaz, sorgin-keriaren ikertzaileek badute hemen aztergairik. Gatozen orain istoriora.

1576ko otsailaren 20an Ozkoidi batxilerrak eta Kosme Uztegi eskribauak 10 edo 11 urteko Maria Etxandiri egin zioten galdeketa. Frantzisko Goizueta zenduaren eta Maria Martin Etxandiren alaba zen hura, eta ordurako Iruñean bizi zen. Bost urtez Zigan egona zen, amaren aldetik osaba zuen herriko erretorearenean. Neskatoak aitortzan dioenez, aurreko udan frankotan egona zen apaizaren serora Maria Etxenikerenean ere, *serorea* edo *serora* ezizenez ezaguna zenarenean, bazkaltzen. Ostiral batez, apaizaren etxean lotan, erlantz batek esnatu zuen, eta txakur batek ohetik atera. Serora inguratu, eta ukendu bat eman ondoren, giza gorputz bat sartzeko adinako tamainarik ere ez zuen zulotik atera bide ziren biak mirakulutsuki. Aroztegiko bordaren ondoko ordoki batera eraman zuen serorak neskatoa, Iurretako bidean. Bertan, aulki batean jarririk, urrez jantzitako gizon bat: adarrak ere urrezkoak zituen nonbait. Hara bilduak ziren auzian izen-abizenez aipatutako zigatar mordoa, eta gaztetxoak ezagutzen ez zituen beste anitz lagun ere. Serorak gaztea urrez beztia zen horri eraman zion, eta honek galdetu:

(5) Nor dacarçu? ori? (2v)²⁵

eta serorak arrapostu:

(6) Au da, jauna, erretore Çigacoaren ylloba. (2v)²⁶

Orduan urrehunak neskatiokoari:

(7) Yc gure legueco nay dun? (2v)²⁷

Eta serorak baietz esatera behartuz, apezaren ilobak:

(8) Bay, jauna. (2v)²⁸

Egun horretako akelarrea xeheki deskribatzen du auzibideak. Dantza izan zen, ogi zuri eta beltza, sagardoa, ukenduak eta sexua alde guztietatik. Jaunari ipurdian muin egiteko parada ere izan zuten, eta hori dena bukatuta etxeratu ziren denak.

24. Idoatek (1978: 121-123) dioenez, auzibide asko Logroñoeko Inkisizioari bidali zitzaizkion haien peskizak egin zitzaizkien, eta beste batzuk hemen gorde ziren. Joan-etorri horietan galduko zen hau, eta beranduago Idoatek aurkitu?

25. «Que es dezir: ¿A quien trays? ¿a essa?» (2v).

26. «Que es dezir: Esta es sobrina del rector de Çiga» (2v).

27. «Que es dezir: Tu quieres ser de nu[es]tra ley» (2v).

28. «Que es dezir: Si señor» (2v).

Maria serorak Etxandi gaztetxoa bigarrenetik akelararrera eraman zuenean, bertan zebilen behi talde bati kalte egin zioten sorginek, neska gazteak galdeketan esandakoaren arabera. Behizainak, zigatarrak beroriek, han azaldu bide ziren, baina ez zieten sorginei ezer egotzi, oihuka hau esan baizik, euria baitzerion gau hartan:

(9) A echa andre onac, egaloc ongui bustiric hecheraco çarate. (5r)²⁹

Maria Etxandi gaztetxoak ez zuen bakarrik Maria Etxenike serora salatu. Horrekin batera beste zigatarrak anitzen izenak ere eman zituen, gehienak familia berekoak: Juan Goienetxe apaizaren ama, arrebak eta ondorengoak. Salatuak, bistan dena, euren buruak zuritzeari lotu zitzaizkion, Zigako erretoreak Goienetxe apezarekin eta etxeniketarrekin aitzinetik tirabirak zituela agerian utziz, eta erretoreak sorginkeria aitzakiatzat baizik baliatzen ez zuela salatuz. Izan ere auzibidean bertan esaten denez, ordurako ailegatua zen Zigara Anozibarren sorginak harrapatzen ari zirela (hemen bertan jorratu dugu auzibide hori, cf. § 3.1), eta badirudi erretoreak egoki iritzi ziola 11 urteko ilobaren bidez sorginkeria salaketak baliatzeari, hainbat herritarrekiko mendekuz edo. Salatuen defentsa prozesu horretan, 1576ko apirilaren 8an Ozkoidik eta Uztegik Maria Sabatena zigatarrari jasotako lekukotzari esker jakin daitekeenez, Sabatenak, Maria Urtsua ere bertan zela, Maria Etxandiri galdegin zion ea Pero Sanz, hargina, eta haren iloba Graziana Etxenike, seroraren iloba ere bazena, sorginak zirenez. Etxandik euskaraz 'ez' erantzun zuen³⁰. Bestalde, hilabete eta erdi lehenago, erretoreak Goienetxe apaizarekin eta bere familiarekin zuen auziaren erakusgarri, Sabatena gurasoen atarian zela, erretorea inguratu eta Juan Goienetxek auzitan jarraitu ziola aitortu zion, baina berak gauza bera eginen zuela harekin eta bere ilobekin. Ez zuen nonbait izenik aipatu, euskaraz hala esan baitzion Sabatenari:


(10) Ni ere jarrayquico nayçaye ari eta aren ylobay³¹. (39v)³²

29. «Que es dezir: O buenas chandras, bien mojudas las aldas yreys a v[uest]ras casas» (5r).

30. «esta que depone le pregunto si el d[i]cho Pero Sanz el cantero y la d[i]cha Gra[c]iana Dechenique, su sobrina, heran bruxos como dezia, y ella le respondió, oyendo la d[i]cha Ma[r]ía de Ursua, que no, deziendo 'ez' (39v).

31. Hitz honen amaiera berezia da. Badirudi *ylobaya* dioela eskuizkribuak (cf. 3. irudia), baina batetik letrakeraren trazu garaia ikusita eta bestetik orri horretan berean dagoen laburdura bati so, *ā* ere egon liteke. Gutxi dira testuan <n> gainidatzia duten hitzak, eta beti dira laburdurak. Hartara, hiru interpretazio posible dakuskigu: a) hutsa da, b) *han* erakuslea da edo c) a interjekzioa da. Ez dirudigu esaldi amaiera leku aproposa denik interjekzioarako, eta erakusleak ere ez du zentzu handirik; beraz, hutsaren alde lerratu gara, nahiz eta egia den, eskribauek oso bakan egiten dituztela akatsak transkripzioetan.

32. Gaztelaniaz «le habia seguuyo en los pleytos que habia llebado» (39v) egitura agertzen da.



3. irudia. Irakurketa iluna du ylobay hitzak (azken lerroaren amaieran).
Argazkia: Nafarroako Errege Artxibo Orokorra, Zigako sorginkeria auzibidea, 39v.

* * *

Lehen pasartean, (5)-en, puntuazioa finkatzeak dakar arazorik handiena, eta testuingurua berebizikoa da kontua ebazteko. Bi aukera nagusi daude: bate-tik, *nori dacarçu ori* zuzendu eta aditza datibo komunztadurarik gabea dela onartuaz, subjektua ez, baina objektu zuzena eta zehar objektua agertzen dituen perpaus bakarra dugula esan genezake. Bestalde, perpausaren testuinguruari so, pasartea bi perpausetan banatzeari egokiago deritzogu, hala euskaraz nola gaztelaniazko itzulpenean; gainera horrek ez du inongo zuzenketarik eskatzen.

Adizkiari dagokionez, egun Baztanen, eta are Baztango Basaburuan, Nafarroan aski hedatua dagoen *-a-* baliatzen da (cf. *dakarzu* > *dakarr-a-zu*), menturaz kontsonante bilkurak saihesteko bokal protetikoa dena³³: Etxeniketik Elizondoko dotriñan *dacarraguna* idatzi zuen (Pagola et al. 1995: 205-234). Gainera, kantuak dialektologiarako iturririk onena ez badira ere, Berroetako haurrek “Urte berri berri / zer dakarrazu berri” kantatuz hasten dute urtea (Garmendia 1985: 665) eta Anizen *badakarrat* jaso zuten Salaburuk eta Lakarrekin (2005: 132). Gamindek (1985: III, 337) ere, besteak beste ikerketarako baliatu zituen Baztango herri guztietan jaso zituen forma *-a-*dunak: (5)-ek ez du, hartara, egungo datuekin bat egiten. Bestalde, Erratzun baizik ez zuen *dekar-* bildu Baztanen, beraz *dakar-* dateke orain ere, ohikoena.

Seroraren arrapostuan (6), baita (8)-n eta (10)-en ere, <j> dugu *jauna* eta *jarrai* hitzetan. Gure ustez, garaiari eta eremuari so, ez dugu ahoskera belarrik espero, ez batean, ez bestean. Beste alde batetik, Rui araua azkarra bada ere egungo baztandarren ahotan (Salaburu & Lakar 2005: 45 hh.), hemen *au da* eta *jauna* dugu. Baztango testu zaharretan ere oso bakan ageri da araua: Ez dago ia XVIII eta XIX. mendeko Bonaparterendako testuetan, fonetismoetan aberatsak direnetan

33. Ondorioz, *dakarra* bezalakoak analogiaz eta segmentazio okerraren ondorioz sortuak lirateke (*dakarr-ala* > **dakarra-la* > *dakarra*).

ere (cf. Salaburu 1986, 1987 eta Pagola et al. 1995), ezta 1750eko dantzen ediktuan (Ondarra 1982) edo 1726 eta 1727ko Baztango apeoko etheen izenetan ere (Ondarra 1984), eta bakanak dira Lekarozek (2006: 73-74) aztertutako XVIII. mendeko testuan³⁴.

Palatalizazioaz denaz bezanbatean, *yloba* dugu (6)-n, baina *ylobay* (10) Sabatena zigatarraren ahotan. Txandaketa grafiko hutsa izan daiteke, baina gogoan har, alde batetik, <ll> digrafo ohikoa dela ordurako gaztelaniaz ere, eta beste alde batetik, eskribau berberak jaso eta idatzi dituela bi aldaerak. Gainera, herri berekoak dira bi aldaeren ekoizleak. Baztanen bustiduraren araua konplexua da egun eta gainera bitan banatzen du eremua. Ibarraren iparraldean urriagoa da bustidura, eta arau honi jarraitzen zaio: [l > ll / Vi_V]. Basaburuan ordea, Zigan esaterako, testuingurua [i_V] da, hau da, kontsonanteak ez du aurretik bi bokalen beharrik (Salaburu & Lakar 2005: 50 hh.). Hori horrela, Zigan *illo(b)a* espero dugun bezala, iparralderago *ilo(b)a* kausituko dugu. Bustidura hegoaldetik iparraldera hedatu dela uste badugu, egon zitekeen orduan bi arauen arteko txandaketa bat Zigan?³⁵ Kontu grafiko hutsa baizik ez da?

Genitiboan *-ain* da formarik ohikoena Baztanen oraingo denboretan, nahiz eta beste forma batzuk kausitzen ahal diren egun (Salaburu & Lakar 2005: 72), eta testu zaharragoetan ere bai³⁶, baina hemen ageri denak ez du bilakabide hori jaso³⁷.

Hitzordenari gagozkiola, genitibodun sintagma buruaren atzetik ageri zaigu. Horrelako egiturak Erdi Arotik ditugu dokumentaturik Nafarroan, antroponimoetan: 1246. urtean *Domeca Laraneco (Larraineko)* dago Anizen (cf. Mitxelena 2011 [1969]: 507), eta *Garcia Martiniz Indaberrico* edo *Pero Mayoraco* Zigan berean 1366an (Salaberi 2003: 120, 128), esate baterako. Krajewskak (2017: 266), egitura horiek aztertutik, buruaren ondoko leku-genitiboak Nafarroan eta Bizkai/Arabian harrapatu ditu ugarien. Nafarroak lekukotasun guztien % 20 hartzen du, eta Lapurdik % 10. Hala ere, leku-genitiboak hainbat motatakoak izan daitezke Krajewskaren sailkapenaren arabera. Hau [IZENA-ko] egiturakoa litzateke: era honetako egiturek corpus osoaren % 8,2n baizik ez dute genitiboa atzetik jartzen, eta Nafarroako datuak bakarrik kontuan hartuta, % 6,6ra jaitsiko litzateke ehuneko. Labur esanda, kuantitatiboki ezohikoagoak dira horrelako egiturak, sintagma

34. Baztangoa bide den XIX. mendeko dotrina batean araua oso gutxitan gertatzen dela diosku Ibarrek (2014: 239), eta *dire* adizkia aipatzen du salbuespen gisa. Egia da testu horretan *dira* ere badagoela, baina azterketa sakonagoen faltan, horrelakoen atzean *dira(d)e* adizkia ez ote dagoelako susmoa dut. Reguerok (2017: 599) aldis, nahiago du *dira* eta *diren* bezalako formen segmentazio okerraren ondotzat jo.

35. Egun ere bada salbuespenik Baztango Basaburuan, eta *ilupe* bezalakoak ohikoak dira, Salaburuk eta Lakarrek (2005: 54) dakartenez.

36. XVIII. mendearen lehen laurdeneko apeoan (Ondarra 1982) ez da bilakabidea ageri, oso bakana da XVIII. mendeko predikuan (Lekaroz 2006), eta Etxenikek XIX.ean ordea, ohikoa du (Salaburu 1986, 1987 eta Pagola et al. 1995).

37. Erauln 1596eko dokumentu batean dugun *Mariayna* aski dudazkoa kenduta, *-aren > -ain* bilakabide berantiarra da (gaztigua, Urtzi Reguero).

genitiboduna aurretik paratzen duten egiturak baino. Nafarroan ere aski bereziak dira, eta [IZENA-ko] egitura dutenak are bereziagoak, onomastikatik landara, beti ere³⁸.

Aipatu beharrekoa da, beste alde batetik, (7)-k forma alokutibo femeninoak dakartzala. Gainera, izenordain posesiboak Linchmann-Aresti legea errespetatzen du, XVI. mendeko Nafarroan espero bezala (Reguero 2017: § 3.3.2).

Anozibarko testuko (3) adibidean *behar* aditzarekin gertatu bezala, *nahi* aditzak hemen ez du *izan* partizipiorik hartzen aurretik. Horrelakoak, *OEH* begiratura (s.v. *nahi izan*) Iparraldeko autoreengan ditugu, hala nola Leizarragaren, Haranbururen edo Goihetxeren testuetan. Kasu honetan ere *nahi* aditzak laguntzaile iragankorra eskatzen du. Ohar bedi, bestalde, perpaus honetako atributu funtzioko sintagmak ez duela artikulurik.

(9)-k plural hurbila dakarkigu. Nafarroako testuetan bada alerik, eta absolutiboan nagusiki (cf. Amenduxen olerkiko *içoc*, adibidez). Reguerok (2017: 570) dioenez, XVI. mendean dira ohikoen, eta ihartuz eta desagertuz doaz denborak aurrera egin ahala.

Perpaus berean, *Hecheraco* forma gertakizuneko aspektudun aditzat ulertu behar dugu. *OEHk* (s.v. *etxeratu*) garbi dioenez, XIX. mendera bitartean ez dugu *etxeratu* partizipiorik ikusiko, *etxera* baizik, Larramendi salbuespen.

(9)-ko adizkiak ez du irakurketa garbi-garbirik, papera zulaturik baitago, baina gure ustez *çarate* da. Egungo baztanen *zate* dugu (Salaburu & Lakar 2003: 91), salbuespenik gabe eta Baztan guztirako hori du Irizarrek (1997) ere. *Zate* dakar, orobat, XVIII. mendeko sermoiak (Lekaroz 2006: 91). Gure ustez *zate* horren gibelean *zarate* dagoke, *zarete* atzeranzko asimilazioduna bainoago. Goi-nafarreraz *zarate* aurkitzea ez da zaila. Irizarren (1992a) lana begiratura, zera ikus daiteke: Lizarraga Elkanokoak badu, Utergan eta Beriainen ere badago, eta baita Ororbian eta Goñerrin ere. *Zate* Nafarroa gehienez dugu: Bonapartek Aietxun, Agoitzen, Mugetan, edo Adoainen ere jaso zuen, orobat Erroibarren, eta Goñerrin edo Oltzan ere bada, Beorburun eta Nuinen, Latasan eta Gaskuen Odietan, baita Artzibarren ere, Mezkiritz aldean Erroibarren... Funtsean, esan daiteke, Nafarroan *zara*-tik abiatzen direla adizkiok, baita *-te* baino, *-e* pluralgilea darabilten eremuan, Sakanan kasu³⁹. Hartara, adizkiak ez du testua Baztango mintzoan kokatzeko laguntza handirik ematen⁴⁰.

Hiztegiari dagokionez, *hegal* espero dugu Nafarroan, eta Pirinioez iparraldean ere bai (cf. *OEH* s.v. *hegal*). Adiera da berezia: gaztelaniaz *aldas* dator, eta gure irudiko *OEH*ren 4. adierarekin egiten du bat; gonaren behealdeari deritzo,

38. Krajewskak Beriain, Elizalde eta Lizarraga baizik ez ditu kontuan hartu Nafarroan, beraz, agian ezin dugu ondorio erabakigarriegirik atera Nafarroarako bakarrik, baina Reguero (2017: 623) ere ideia honen aldekoa da.

39. Ohikoena *-te* da Nafarroan, historikoki ere (Reguero 2017: 614).

40. Eta ez du baztertzeko, gainera, Iruñe inguruko euskara administratibo horren itzala ere egon zitekeenik.

hain zuzen (cf. *halda < falda*). Izetak (1996: 71) *Baztango Hiztegi*an txorien gorputzatal gisa baizik ez dakar.

Etxa-andre hitz elkartua dugu, *chandra* itzulita gaztelaniara. *-ko* gabeko aldaera honen hedadura sobera zabala ez izanik ere, Nafarroan Erdi Arotik dago dokumentaturik, Nafarroako Foru Orokorrean (TAV 54), euskaratik mailegatutako erdal hitz gisa ere ezaguna da Nafarroan eta inguruan (Iribarren 1984 [1982])⁴¹, eta Kardaberatzen testuetan ere irakur daiteke. Badirudi foruan etxeko andrea estatuturik bati lotua ageri dela, eta gerora gaztelaniaren barnean *chandra* hitzak hartu duen adiera kontuan izanik, gurean ere segur aski ez da hitzez hitz interpretatu behar. *Etxe-* > *etxa-* bilakabidea, euskalki guztietan gauzatua da Erdi Arotik (Mitxelena 2011 [1956]: 232, 2011 [1964]: 11) eta Garibaik badu, adibidez, *Norc vere gozoç echa guinean* 'Cada vno segun su pensamiento haze su casa' (Urkixo 1919: I, 9)⁴².

Erdarazko itzulpenari, eta oro har, auzibideko testuinguruari beha, (10)-eko *ylobay* datibo plural gisa ulertu behar da. Reguerok *-ei* dakar datibo pluraleko forma bakartzat Nafarroan, XVIII. mendean *-eri* ageri den arte, baita *Baztango* testuetan ere, nahiz eta horietako batzuetan *-ei* ere baden. Hemengoa *-ai* da, baina egia da testuinguru fonologikoa berezia dela, <a>-z amaitzen den hitza baitugu⁴³.

Erakusleei dagokienez, *hari* eta *haren* (> *ain*) espero dugu Baztanen egun ere (Salaburu & Lakar 2005: 75), azkenak, garaian ohi bezala, Linschmann-Aresti legea betetzen duela (Reguero 2017: 632).

Jarraiki aldaera Iparraldeko zatian du *OEhk*. Zuberera klasikoan badago, baita lapurtera klasikoan eta horren ondorengo Lapurdin ere, baina *segitu* ere bada anitzetan: Etxeberri Dorre eta Sarakoaren, Aranbillagaren, Gazteluzarren edo Axularren testuetan erruz dago *segitu*, esaterako (cf. *OEH* s.v. *segitu*). Mendiburu badu *jarraiki-rik*, eta *Baztango Hiztegi*an ere ematen du Izetak (1996: 185); berdin Salaburu eta Lakarrek (2005: 385), aurrekoa iturri dutela. Elizalde baztandarrak segur aski Urdazubiko euskarari idatzitako predikuetan ere badago (Ondarra 1993), baina *segitu* dakar XVIII. mendeko predikuetan (Lekaroz 2006). Goi-nafarreraz ez da aldaera hori ugari aurkitzerik. Ikus daitekeenez, erabilera iragangaitza du, Nor-Nori saillekoa. Hori dateke aditz honen zeinahi aldaeraren erabilera zaharrena; izan ere, *OEhk* dioenez (s.v. *jarraiki*) mendebaleko testu zaharrenek ere hura darabilte, Amenduxek eta Iruñeko 1609ko olerkiek ere forma trinko iragangaitza dute (TAV §§ 3.1.18 eta 3.1.11 hurrenez hurren) eta Lizarraga Elkanokoak biatarik; Izetak (1996: 185) adibide iragangaitza jaso zuen hiztegiari eta Iparraldeko autoreetan ere nagusi da erabilera hori.

41. *-ko* gabeko formak Bizkai aldean ere agertzen direnez, Foru Orokorrean idazleak hitzok Nafarroako hego mendebaleatik jaso zituela esan zuen Caro Barojak (1969: 94), hango euskara mendebalera begira baitago, baina gure ustean ez du horretarako oinarri aski sendorik, eta adibide honek kontra egiten dio.

42. Gaztigua: Eneko Zuloaga.

43. XVIII. mendeko *Baztango* pedikuan (Lekaroz 2006: 75) bada *-ai-rik*, baina balio singularrez: pluralen *-ei* eta *-eri* dago.

Aditzak, *-ki* amaiera izanik, geroaldirako *-ko* hartzen du, eta ez *-ren*. Re-guerok (2017: 611 hh.) dioenez, Nafarroan ez dugu *-ren* formarik espero, eta bi kontradibide baizik ez dakartza: Amenduxen olerkia eta Martinez Morentinen XVIII. mende hondarreko predikuko adibide bakarra.

Nayçaye adizkiak berezi du *-y-*. Aspalditik dago dokumentaturik hori; Uitziko ezkontza fedean (Satrustegi 1992: 56-57), XVI. mende hasieran, *nayçaquanala* dugu eta Beriainek *nayçayo* bat badu⁴⁴. Garaikideagoak diren zenbait bertsotan ere *naitzazu* eta *naitzaio* badira gipuzkeraz (Zabala 1985: 15, 38, 92)⁴⁵.

3.3. Orokieta, 1578. (NEAN z/g)

Auzibide hau ere Idoateren paperen artean agertu da berriki, eta ez du oraingoz katalogo-zenbakirik NEANen. Gainera, aurrekoetan ez bezala, honen erreferentziarik ez dugu inon aurkitu: Idoatek (1978) ez du aipatzen, Henningsenek 2010 [1980] ere ez, ezta Usunarizen (2012) lan biltzaile argigarriak ere.



4. irudia. Orokieta. Argazkia: Idoia Lazkano.

44. Metatesian pentsa liteke Uitziko lekukotasunaren kasuan, baina ez Beriainenean edo gurean.

45. Asimilazio prozesu honen adinaz ezer gutxi esan dezakegu, baina Mendebaldean Betolatzak dagoeneko baduen *nachaco*-k ere **naitzako* duke abiaburu, eta prozesu fonologikoa ezaguna da Ekialdean ere, *bakotx* edo *bekotx* hitzetan esaterako: ez genuke baztertu nahi berrikuntza beregainak izatea, dena den, testuingurua eta emankortasuna ez baitatoz bat euskararen eremuaren bi saihetsetan.

1576ko urtarrilaren 31n Migel Martinez Aginaga lekunberritarra, Larraungo alkate iraunkorra, bidali zuen fiskaltzak Orokietara ikertzera, Aldekoa etxeko Grazia Orokietara eta familia sorgintzat baizituzten han. Besteak beste, akelarreetan parte hartu, umeak hil, ura pozoindu eta larreak antzutu izana egotzi zieten, eta haiek ukatu. Elizara ogia bedeinkatzera eramatea bera debeku zitzairen. Orokietako eta inguruko biztanleen testigantzak altxor etnografikoa dira sorginen auziak ikertu nahi dituztenendako, baita toponimiari dagokionez ere, baina gu, esan bezala, euskarazko pasarteei baizik ez gataizkie lotuko.

1576ko urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra Miguel Martinez Aginagak, Juan Arano eskribaua lagun, hainbat lekuko galdekatu zituen, eta bakoitzak Graziarekin, haren ama Graziatxorekin edo besterekin izandako sorginkeria esperientziak aditzera eman.

Kinka horretan, 37 urteko Maria Ezkurrak, Juan Erbitiren emazteak, zera kontatu zuen: Grazia bere etxera inguratu bide zen ardo bila. Mariak ardoa eman Graziari, eta solasean ari zirela, Graziak bere burua salatu omen zuen etxekoandre Mariaren harridurarako, ordurako zuen fama kontuan hartuta:

(11) Echeoandrea, sorguinoc orayn erre bear omen dugu. (13r)⁴⁶

Horrelako leukotasunek eta beste zenbaitek gartzelara eramane zuten Grazia otsailaren 14an. Hurrengo hilabeteetan, martxoak 10 zituela, Bartolome Benavente fiskalak akusazio formala egin zuen jasotako lekukotzetan oinarrituta, eta dokumentu horretan berriz jaso zen Maria Ezkurraren pasarteak:

(12) Echeoandrea, sorguinoc oray herre bear omen dugu. (20v)⁴⁷

1576ko martxoaren 27 eta 29 bitartean Joan Lizaso Iruñeko notarioak egin dako galdeketetan, Martin Eratsunek, 18 urteko eratsundarrak, bere nagusiaren alabari, Johanatxo Erbitiri, kontakizun bat entzun zion. Behin, Ilarregiko Mari Sotil delakoak Johanatxoren aurrean hau esan bide zion akusatuari:

(13) Yçeba, çu ere sorguina omen çara eta aquerlarrean nola ybilten çarete. (33r)⁴⁸

eta akusatuak:

(14) Le abia respõdido q[ue] era un erguel... (33r)

...eta ea zertarako zebilen horrelakoak esaten.

Galdeketa berean, Maria Orokietak, 37 urteko Pedro Gartzaron "Arotza"-ren alargunak, ardoaren pasadizoa ekarri zuen solasera. Salatua gartzelan zen ordu-

46. «Que quieren dezir en lengua castellana: N[uest]ra dueña, agora avemos de ser quemadas las bruxas» (13r).

47. «Que quiere dezir en lengua castellana: N[uest]ra dueña, agora emos de ser quemadas las bruxas» (20v).

48. «Q[ue] quiere dezir en romance: Tia, vos tambien diz que soys bruxa y como soleys andar en el prado de las cabras» (33r).

rako, eta dirudienez, Joanes Lizaso orokietar arotza entzun zuen behin alargunak, esanez euskarazko hitz horiek ez zituzkeela inork esan behar, ez bazuen bere burua salatu nahi. Baina hitzok apur bat moldaturik ageri dira aitortza honetan:

(15) Sorguinoc oray galdu bear omen dugu. (39r)

Mariak berak kontatutakoaren arabera, akusatuak eta ama Grazia Mikela-renari bidera atera omen zitzaizkion behin eta eraso, Garaiko errotatik bueltan zela. Lurrera bota eta ito nahi izan bide zuten. Erreka bazterrera eramanez, baina Ama Birjinari dei egin baitzuten, aske utzi zuten: ez luzaz, ordea. Hortik gutxira berriz agertu zitzaizkion itotzeko asmoz. Ahoa zabaldu zioten mingaina hartu nahian, elkarri hau ziotsotela:

(16) Orraça, orraça! (39r)⁴⁹

Lekukotzak jasota, Logroñoeko Inkisiziora igorri zuten auzia, han epaitzeko.

* * *

Batera aztertuko ditugu (11), (12) eta (15). *Sorguinoc* hitzean (eta (13)-ko *sorguina*-n ere) ez dago palatalizaziorik, egun Orokietan eta inguruko eremuetan espero badugu ere (Bujanda *et al.* 1993: 79-83, Apalauza 2012: § 8.2.1). Grafiaren ondorio izan daiteke, baina aski sistematikoa da grafema palatalaren falta.

Plural hurbilari dagokionez, arestian esan dugun bezala, Nafarroako testuetan bada alerik, eta absolutiboan nagusiki: cf. adibidez (9) hemen bertan, edo Otsagabiko *bioc* 1598an (Santazilia 2015: § 1.9). Reguerok (2017: 570) erakutsi duen moduan, XVI. mendean dira ohikoen, eta ihartuz eta desagertuz doaz denborak aurrera egin ahala. Edonola ere, Caminok (1997: 368 hh.) eta Ibarrak (2000: 127) Aezkoa eta inguruetan ere jaso dute plural hurbilik oraingo denboretan, baina Orokietaren eremuko euskara aztertu duen Apalauzak (2012) ez dakar horren berririk. Amenduxek duen *içoc*-ek eta hemen jasotakoak badute alde bat: hau inklusiboa da, hots, plural hurbilak hitzuna hartzen du barnean, eta besteak ez. Bi esanahiak izan ditzakeela aspaldi erakutsi zuen Mitxelenak (1979: 395), baina bereizketak ondorio diakroniko edo geografikorik duen ez da sakon aztertu, nik dakidala.

Funtzio bokatiboko *echecoandrea* formak artikulua du. Hizkuntza erromantzeetan horrela ez izanik ere, euskalki guztietan forma artikuludunak dira nagusi XVI. mendetik (Manterola 2015: 384 hh.); bestalde, hitza bokatiboan nagusiki Iparraldeko testuetan agertu ohi dela dio *OEhk* (s.v. *etxeoandre*), baina kontra legioko adibide honek.

Behar aditzak *dugu* laguntzaile iragankorra darabil eta nahiz eta biak posible izan, Nafarroan testu zaharretan hori bide da ohikoena, (15). pasartea aztertzean esan dugun bezala. Gainera, *dugu* adizkia da Orokietan gaur ere espero duguna (Irizar 1992b: 309), eta ez *degu* bezalakorik.

49. «Q[ue] quiere dezir: aguja, aguja» (39r).

Omen partikulaz denaz bezanbatean, XVI. mendeko testuetan dagoeneko franko dago (cf. *OEH* s.v. *omen*). Reguerok (2017: 168-169) *OEHk* ematen duen lehen lekukotasuna urtebete aurreratzea lortu du Iruñeko 1596ko auzibide batean dauden *omen*-ei esker, baina une honetan Orokietak leukake lehen agerpenaren titulua. Aipatu Iruñeko auzibide horrek aski datu interesgarriak dakarzkigu partikularen semantikaz. Testu garaikide zenbaitetan hala izan arren, *omen*-ek ez du berez ziurtasun eza adierazten, proposizioa hitzuna ez beste norbaitek esan duela baizik (cf. Zubeldia 2009). Iruñeko auzibide horretan *omen*-dun pasarteen erdal ordainei begiratzen badiegu (Reguero 2017: 163), horiek ere ez dute ziurtasun eza inondik ere ageri, lekukotasuna beste norbaiten ahotan jartzen baizik: cf. *omen dio eçe ençun duela* 'que dize que a oydo', *erran omen diote* 'diz que le an dicho' edo *aurquitu omen çuela* 'dizen le avia allado'. Aztergai ditugun pasarteetako *omen* horietan ere, hala (11), (12) eta (15)-en nola (13)-koan ere, erdal itzulpenetatik ezin idoki daiteke ziurtasun faltarik, eta akusatu bat zigortzeko xedez lekukoei egindako galderez ari garela, aski garrantzitsua iruditzen zaigu ñabardura semantiko hori.

(11)-n *orain* dator, baina *oray* dago (12)-n eta (15)-en. Lehena Aginagak eta Aranok jasotako probantzan dago, eta Grazia orokietarrak esan bide zuen, Maria erkideak aditu zuenez. (12)-k ere Graziaren hitz berak jaso nahi ditu, baina oraingoan Benavente fiskalak dakartza akusazioan idatzita. Azkenik, (15)-eko pasartea Joan Lizaso notario iruindarrak jaso zion Maria orokietarrari, eta honek Joan Lizaso Orokietako herritarrari entzun. Benaventek akusazioan jasotako *oray* bere euskararen fruitu izan liteke; haatik, (11)-ko eta (15)-eko forma kontrajarriak orokietarren ahotik atera ziren dirudienez, eskribau desberdinek jaso bazituzten ere. Herrian bertan txandaketa egon zitekeela pentsa dezakegu, edo eskribauen euskararen eragina ere badela. Gaur egunean forma *n*-dunak daude Basaburu nagusian, eta Apalauzak (2012: 262) Muskitzen baizik ez ditu gabeak jaso. Reguerok (2017) forma sudurkarigabeak ekialdekotzat ditu, nahiz eta ez duen ekialde horren hedadura asko zehazten. Bere corpus historikoan, hala ere, *orai* da nagusi, eta *orayn*(go) oso bakan baizik ez du, beti ere, garai zaharretan, hori bai. Etxaurin XVI. mendean biak batera daude (Santazilia 2015: 131): *orayngo* eta *orayco*. *EHHA*-ren datu nolabait garaikideek (cf. 326. mapa) banaketa interesgarria dakarte *orai*(n) hitzarendako; izan ere Nafarroako ekialde eta mendebalean agertzen dira egun forma *n*-gabeak, eta erdialdean, Basaburuan kasu, sudurkaridunak. Ez litza-teke erokeria erdialdeko egoera berrikuntza dela pentsatzea; berrikuntza zaharra, hori bai, eta inoiz txandaketa egon dela.

(13)-ko perpausa ez da ulertzen erraza. Testuinguruari begiratuta ere, ezin jakin daiteke *nola* horrek galdera bat abiatzen duen ala azalpenezko menpeko perpausa. Bigarren horren adibideak XVII. mende hasieran Arreko bertsoetan ditugu eta XVIII. mendekoak diruditen Larrasoñako predikuan edo Orrioko eliza-aginduan ere bai, besteak beste (Reguero 2017), baina horietan [*nola... bait*-] da egitura sintaktiko osoa. Beste aukera bat da, *OEHk* (s.v. *nola*) jasotzen duenez, zehar-galderekin lotura duen interpretazio konpletiboa, zeinetan *nola* horrek *-ela*-ren adiera bera duen; baina *OEHk* dakartzan adibide guztietan adizkiak *-en* behar du, eta hemen ez dago halakorik. Harridura adierazten duen galdera erretorikoa izan daiteke menturaz? Orain ezin ebatz dezakegun auzia da.

Adizkian *zarete* dugu, eta ez *zarate*. Orokietan *zate* aditzen da orain (Irizar 1992b: 303), eta, gure ustez, errazago erator daiteke hori *zarate*-tik, baina ez da ezinezkoa *zarete* egotea horren sorburuan. Ez ahantz, baina, hitzok ilarregitar batek esan zituela: Irizarrek (1992b: 58) herri hartan oraingo denboretan, *zate* eta *zarete*, biak jaso ditu, eta azak ontzeko, berriemailea eratsundarra dugu, orain *zate* edo *zatea* darabilen herrikoa (Irizar 1992b: 632). Adizkiak, *-te* pluralgilea du, orokorra Nafarroan garai guztietan, saihetsetan izan ezik. Orobat, *za(ra)* espero dugu bertan, eta ez *zera* (Irizar 1992b: 303).

Ikuspegi diakronikotik interesgarria da kontsonante urkaridun erroko *ibili* aditzak aditz-izena egiteko *-te-* darabilela. XV. mendeko Iruñeko *Pater noster txikian* ere *iracurten* dago, 1609ko Iruñeko olerkietan ere *eçarten* dator, eta Beriainek zenbait egitura ihartutan ere badu (Reguero 2017: 591 hh.): ondorengo mendetan txandaketa dago, eta galera azkenean (Camino 2013: 120), baina horrelakoak inoiz orokorrak izan zirela bermatzen du beste behin testigantza honek (cf. Urgell 2006). Zuazok (2010: 168), eta lehenago Urgellek (2006: 944) *-te-*ren partez *-tze-* baliatzea Iruñetik hedatutako berrikuntzatat dute, Beriain oinarri hartuta (nahiz eta, esan bezala, *-te-* iharturik baduen) eta Etxeparek 1545rako dagoeneko ere berrikuntza egina duela esanez. Diotena hala bada, XVI. mendearen amaieran oraindik ailegatu gabe zegokeen berrikuntza Orokietara? hizkera jasoa-ren eta arruntaren arteko aldea dugu?

Interes berezikoa da *aquerlarre*, eta baita haren itzulpen 'prado de las cabras' ere. *OEhk* (s. v. *akelarre*) *akelarre* aldaeraren lekukotasunak ditu batik bat, eta *akerlarre* forma XVII. mendean Silvain Pouvreaux dakarrela ere badio. Esanahiaren aldetik, sorginen biltokiari edo Zugarramurdiko eremuari datxekio. Dena dela, hitzari buruz egin diren zenbait ikerketa aski interesgarri eta argigarriak dira, *OEh*ren datuetatik urrunago baitoaz. Azurmendik (1993, 2012...), Paulek (2008) eta Henningsenek (2012) defendatu dute, Aingeru Irigarainen susmoan oinarrituta, hitzaren etimologiaren oinarrian **alka-larre* dagoela, eta ez **aker-larre*, eta XVII. mende hasierako Logroñoeko Inkisizioari zor zaiola landare hori duen larrea akerrarekin identifikatzea eta sorginen balizko festarekin lotzea. Zugarramurdin *Alkelarre*, *Alkerdi* eta *Alkezuri* leku-izenek ere hori erakutsiko lukete. Etimologia horri, baina, hainbat arazo ikusi dizkio Euskaltzaindiak (prestatzen) abian duen hiztegi historiko-etimologikoak (s.v. *akelarre*): batetik, hitza ezaguna da Zugarramurditik urrun, landareari *zalga* deritzon Mendebaldeko euskararen ere; gainera, Zugarramurdin, *alka* > *alke* aldaketa ez da justifikatzen erraza⁵⁰. Bestalde, XVI. eta XVII. mendeetako sorginkeriari buruzko dokumentuetan ere *alkelarre* ageri da (Azurmendi 2012: 45, Henningsen 2012: 58), baina beti beste aldaera zenbaitekin batera: Euskaltzaindiaren hiztegi historiko-etimologikoak nahiago du, hartara, *alkelarre* gaztelaniazko *al aquelarre*-ren eraginari egotzi. Franko omen dira garai hartan *akelarre* aldaeraren esanahia ulertzen ez bide zutenak; izan ere 1609 arte ez dago adibiderik, eta horrek terminoa bera (baita festarekiko lotura ere) inkisidoreek

50. Azurmendik (2012: 45), 1611n Igantziko apaizak esandakoa bere eginez, ezinezkotzat du *akerlarre* > *akelarre* bilakabideko sudurkariaren galera, baina bilakabide ezaguna da euskarazko hitz komposatuetan (*FHV* § 17.8): cf. *adaburu*, besteak beste, urte berean Nafarroan dokumentaturik (*ConTAV* § 5.2.4).

asmatutakoa izan zitekeelako ustea indartzen du, jendeak ez baitzuen *akelarre* hitzaren eta sorginen festaren elkarrekiko identifikazioa ulertzen (Henningsen 2012: 59). Orain artean *akerlarre(a)* aldaeraren lehen agerrera 1525ekoa da, Iturengo (Paul 2008: 13), leku-izen gisa. 1595eko auzibide batean (Idoate 1978: 354-355) ere badago, eta toponimoa da hor ere: sorginen biltokia, baina ez festa bera. Orobat, 1610eko dokumentu batean, lau aldiz dagokio lekuari, eta behin baizik ez festari (Paul 2008: 20-21), baina ordurako hitzaren eta festaren arteko identifikazioa ohikoa zen. Labur esanda, litekeena da 'akelarre' hitza eta horren aldaerak, zeinahi dela horien etimologia, sorginen festarekin lotzearen ardua XVII. mendeko epaileen eraginez gertatu izana, gure testuan kausitzen dena leku-izena baita argi eta garbi⁵¹. Hala eta guztiz ere, hitza akerrarekin lotzea ezin egotz diezaiokegu Logroñoeko inkisizoari, azterkizun dugun dokumentu berri honek lotura hori 1576an Nafarroan posible zela erakusten baitu.

Ergel hitza dator (14)-n. *OEH* eta *Corpus Arakatzaillea* ikusita, garai zaharretan Pirinioez iparraldera aurki daitekeen hitza da eta XVIII. mendean hasiko da Gipuzkoan ere agertzen. XVI. mendean *ergelkeria* du Leizarragak (*Luk* 24:11), eta Oihenarten erretrauetan ere badago XVII. mendean, *elger* aldaerarekin batera (Oihenart, Altuna & Mujika 2003: 122, 264), nahiz eta genero paremiologikoan espero dezakegunez, segur aski lehenagoko hizkuntza islatzen den. Nafarroan, Iruñean hain zuzen, 1584an *erguelburu* 'caveça de hombre liviano' ageri da testu batean (Maiora 2011: 84, Reguero 2017: 728), beraz XVI. menderako hitz nafarra ere bazela baieztatu dezakegu.

4. Ezaugarri linguistikoak eta hiztegia

Hondarreko atal honetan testuetan iruzkindu ditugun ezaugarriak gaika sailkatu ditugu lehenik, eta hiztegia eman dugu gero. Horietan denetan, A laburdurak Anozibarko testuari egiten dio erreferentzia, O-k Orokietakoari eta Z-k Zigakoari.

4.1. Ezaugarrien zerrenda

Taulako ezkerreko zutabeen ezaugarria bera heldu da, eta eskuinean zein auzibidetan ageri den eta noiz. Agerrera zalantzazkoa denean, esan nahi baita, irakurketa, interpretazio edo analisi garbia egiterik izan ez dugunean, galdera ikurra paratu dugu parentesien artean. Har bitez tentuz jarraian zerrendatutakoak: 2.1 eta 2.2 ataletan azaldu dugun bezala, komeni da gogoan atxikitzea testuok garaian eta dagokien tokietan baliatzen zen hizkeratik hurbil egonik ere, zalantzarako tarterik ere badela, eskribauen hizkerak eta testuaren izaerak ere utz baitezake herexarik hizkeran. Evidentzia negatiboak, hau da, testuetan ageri ez, baina herriko hizkeran edo, oro har, Nafarroan geroago dokumentatzen direnak ere sartu ditugu esan-guratsuak direnean.

51. XVI. mendean Nafarroako justizia euskalduna zela erakutsi badugu ere (cf. § 2.1), XVII. mendeko Logroñoeko inkisizioa eta horrek galdeketak egitera igorritako funtzionarioak beste errealitate linguistiko batean bizi ziren.

2. taula. Ezaugarrien zerrenda

FONOLOGIA	
-il- / -ill- txandaketa	A, Z
-in- palatalizaziorik gabe	O
Rui araurik eza	A, Z
<j>-ren ahoskera irristaria	Z (?)
IZEN MORFOLOGIA	
-tako destinatiboa	A
-ren genitiboa	Z
-ai adlatibo plurala	Z
ene izenordain posesiboa	A
<i>Linschmann-Aresti</i> legea	A, Z
Plural hurbila	Z, O
Artikuluaren erabilera bokatiboan	O
Artikulurik eza atributuan	Z
ADITZ MORFOLOGIA	
Hikako formak	A, Z
Hitanoko Nor 2. pertsona singularrean y-rik ez	A
<i>Nahi</i> aditza partizipiorik gabe aurretik	Z
<i>Behar</i> aditza partizipiorik gabe aurretik	A
<i>Behar</i> aditza * <i>edun</i> laguntzailearekin	A, O
<i>Nahi</i> aditza * <i>edun</i> laguntzailearekin	Z
* <i>edun</i> erroko adizki bipertsonaletan -u- erro-marka	A, Z, O
3. pertsonarako -e pluralgilea	A
3. pertsonarako -te pluralgilea	Z, O
Herskaririk gabeko inperatiboa (<i>orye</i>)	A
<i>ekarri</i> aditz trinkoa: <i>dakarzu</i> (vs <i>dakarrazu</i>)	Z
<i>Izan</i> aditzean asimilaziorik ez: <i>zarate</i>	Z
<i>Izan</i> aditzean asimilazioa: <i>zarete</i>	O
<i>Jarraiki</i> iragangaitza (Nor-Nori)	Z
-i partizipiodun aditzetan geroaldiko aspekturako -ko marka	Z
-te aditz izena -l erroko aditzetan	O
<i>Izan</i> aditzean Nor-Nori (Nor= 1.Sg) sailean -i- (<i>naitzaie</i>)	Z
HITZ ORDENA	
[IZENA IZENA-ko] egitura	Z

4.2. Hiztegia

Adizkiak ez beste hitz guztiak sartu ditugu hiztegian. Lemetan grafia gaurkotu dugu, bustiduretarako ere egungo arauetara doitzuz. Izenordainen eta erakusleen kasuan forma deklinatuak gorde baditugu ere, izenak absolutibo mugagabeen eman ditugu⁵².

3. taula. Hiztegia

LEMA	KATEGORIA	LEKUKOTASUNA
akerlarre	<i>iz.</i>	O
bai	<i>ad.</i>	Z
be(h)ar	<i>a.</i>	A, O
busti	<i>a.</i>	Z
ene	<i>izord.</i>	A
ere	<i>lok.</i>	Z
ergel	<i>adj.</i>	O
erre	<i>a.</i>	O
erretore	<i>iz.</i>	Z
eta	<i>lok.</i>	Z
etxa-andre	<i>iz.</i>	Z
etxeoandre	<i>iz.</i>	O
etxera	<i>a.</i>	Z
ez	<i>ad.</i>	Z
galdu	<i>a.</i>	O
gure	<i>izord.</i>	Z
(h)aren	<i>erak.</i>	Z
(h)ari	<i>erak.</i>	Z
(h)au	<i>erak.</i>	Z
(h)egal	<i>iz.</i>	Z
(h)ik	<i>izord.</i>	Z
(h)ori	<i>erak.</i>	Z
ibili	<i>a.</i>	O
ilaungi	<i>iz.</i>	A
iloba	<i>iz.</i>	Z
izeba	<i>iz.</i>	O
jarraiki	<i>a.</i>	Z
jaun	<i>iz.</i>	Z
lagun	<i>iz.</i>	A
lege	<i>iz.</i>	Z

52. Laburdurok baliatu dira kategoriak zehazteko: *a.* = aditza; *ad.* = adberbioa; *adj.* = adjektiboa; *erak.* = erakuslea; *interj.* = interjekzioa; *iz.* = izena; *izord.* = izenordaina; *part.* = partikula; *lok.* = lokailua.

LEMA	KATEGORIA	LEKUKOTASUNA
na(h)i	<i>a.</i>	Z
ni	<i>izord.</i>	Z
nola	<i>ad.</i>	O
nor	<i>ad.</i>	Z
omen	<i>part.</i>	O
on	<i>adj.</i>	Z
ongi	<i>ad.</i>	Z
oral/orain	<i>ad.</i>	O
orratz	<i>iz.</i>	O
sorgin	<i>iz.</i>	O
zu	<i>izord.</i>	O

5. Hondar hitzak

Lan honetan dokumentu administratibo zaharretan ere euskarazko testuak aurki ditzakegula erakutsi dugu. Nafarroako justizia auzibideak horren adibide dira, lan honetan aztertu ditugun sorginkeriarekin lotutako XVI. mendeko hiru dokumentuek –horietatik bi ezezagunak orain arte– salatzen dutenez. Gaztelaniaz idatzirik egon arren, han hemenka lekukoek ekoitzitako euskarazko hitz eta pasarteak bere horretan jaso dituzte. Bereziki interesgarriak dira, gaiari doakionez, sorginkeriarekin loturik baitaude, eta hizkerari begira, duten antzinatasunagatik, zenbaitetan tokiko euskararen lehen –eta azken– lekukotza baitira, eta ahozko mintzamoldetik hurbil daudelako.

Nafarroako justizia auzibideek tokian-tokiko mintzoa modu fidagarrian jasotzen dutela pentsatzeko arrazoiak badira, lekukotzak jasotzeko sistemari begira, galdeketen egileek lekukoek hitzak bere horretan biltzeko agindua baitzuten, baita itzultzaileak erabiltzeko debekua ere. Aingura-testu onak direlakoan gaude, beraz. Haatik, XVI. mendean eskribau euskaldunek hizkera aski homogeneoa izan zezaketela pentsatzeko argudioak egon badaude: denak Iruñean bizi ziren, nafarrak ziren, aski komunitate endogamikoa zen, maila kultural ertain edo altukoa... eta eskribauek jasotako hitzek beren Iruñeko hizkera prestigiotsutik zenbat duten ezin jakin.

Alor metodologikoan, auzibideak osorik begiratzeko beharra aldarrikatu dugu, euskarazko zatien testuinguruaz, ekoizleaz eta biltzaileaz ahal bezainbeste informazio eskuratu ahal izateko batetik, eta pasarte berriak ere aurki daitezkeelako bestetik.

Anozibarko sorginkeria auzibidea ezaguna zen dagoeneko, baina hura miatu duten ikertzaileek euskara helburu izan ez, eta hizkuntzari dagozkion datuak oker transkribaturik eman izan dituzte, edo zuzenean, aipatu ere ez dituzte egin. Hartara, ezagunak ziren pasarteak zuzendu ditugu, eta ezezagun zirauten zenbait aurkitu. Sorginkeria prozesu gogor eta luzea izan zen, eta hainbat izan ziren heriotzara kondenatuak, haur batzuek egindako salaketan oinarrituta. Zigako auzibidea eze-

zaguna zen, eta zeharkako dokumentazioari esker baizik ez genuen ezagutzen. Orokietakoa, guk dakigula, berria da osoki.

Xeheki aztertu ditugu euskarazko pasarteak euren testuinguruan emanaz, eta ageri dituzten ezaugarri fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoak ardatz diakroniko eta diatopikoan kokatuz. Posible izan denean leku bereko eta garai bereko testuekin alderatu ditugu honakoak. Zenbait ezaugarriren lehendabiziko lekukotasunak ditugu testu hauetan, eta hala ez denean ere, horien hedaduraz genekiena aldatu edo findu beharrean gaude. Beste batzuetan genekiena baieztatzaera datoz datuok. Ezaugarri batzuk egun leku berean iraun badute ere, batzuk galdu egin dira urteen joan-etorrian. Txandaketak ere aurki ditzakegu testutik testura, eskribau batek jasotakotik besteak jasotakora, edo herri batetik bestera. Horiek ez dute azalbide errazik: herri batetik besterako jauziaren, eskribauaren hizkeraren edo tokian berean orduan zegokeen txandaketaren ondorio izan daitezke.

Amaitzeko, desagun Nafarroaren ondareko auzibideon ikerketatik aterako dela, etorkizun hurbilean, datu berri interesgarriak. Euskararen Historia deritzon kuboak hiru ardatz hauek ditu: geografikoa, kronologikoa eta soziologikoa. Hiru dimentsio horien (diatopikoa, diakronikoa eta diastratikoa) konbinaziotik idokitako zeinahi puntutan euskarak zein ezaugarri dituen ezagutzea utopiatzat dugunondako, harribitxiak (izanen) dira horrelako testigantzak.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- ARTOLA, K. "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)". *FLV*, 1992, 60 zkia., 187-228 or.
- . *Ziorditik Uztarrozeraino. Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an*. Donostia: Arantzadi Zientzi Elkarte. 2014. Munibe gehigarria 34.
- APALAUZA, A. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, 2012.
- AZURMENDI, M. *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*. Irun: Alberdania, 1993.
- . "A vueltas con el término *akelarre*". In: Usunariz [Usunáriz], J. M. (koord.). *Akelarre: la caza de brujas en el Pirineo (siglos XIII-XIX)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012. 42-53 or. *RIEV* 9 ale berezia.
- BUJANDA, M. et al. *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak II*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, 1993.
- CAMINO, I. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, 1997.
- . "Hego-nafarreraren egituraz". *FLV*, 2003a, 94 zkia., 427-468 or.
- . *Hego-Nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, 2003b.
- . *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gáindi*. Donostia: Elkar, 2009.
- . "Euskalkien historia: Lapurdi eta Nafarroa Garaia". In: Gómez, R. et al. (arg.). *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 2013. 77-140 or.
- CARO BAROJA, J. "Observaciones sobre el vascuence y el Fuero general de Navarra". *FLV*, 1969, 1 zkia., 61-96 or.
- . "De nuevo sobre la historia de la brujería (1609-1619)". *Príncipe de Viana*, 1995, 206 zkia., 741-802 or.
- ELORTZ [Elorz], J. R. "Léxico vasco residual de Artajona". *FLV*, 1997, 76 zkia., 473-496 or.
- EUSKALTZAINDIA. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2008-2016. [= EHHA]
- . *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, prestatzen.
- GAMINDE, I. *Aditza Ipar Goi Nafarreraz*. Iruñea: UEU, 1985.
- GARMENDIA, J. "Valle de Baztán. Vida y muerte en Berroeta". In: *Aingeru Irigarayri omenaldia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1985. 663-669 or. *Oihenart* 4.
- GOLDARATZ [Goldáraz], J. "Galbarioac Uscaraz ofrecimentua (Etsain herrian aurkitua)". *FLV*, 1995, 69 zkia., 363-382 or.
- GORROTXATEGI [Gorrochategui], J. "Andrés de Poza y el euskera". *ASJU*, 1987, 21:3 zkia., 661-681 or.
- ; LAKARRA, J. A. "Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco". In: Villar, F. & M^a P. Fernández (arg.). *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea, 2001. 407-438 or.
- HENNINGSSEN, G. *El abogado de las brujas*. Madril: Alianza editorial, 2010 [1980].
- . "El invento de la palabra *aquejarre*". In: Usunariz [Usunáriz], J. M. (koord.). *Akelarre: la caza de brujas en el Pirineo (siglos XIII-XIX)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012. 54-65 or. *RIEV* 9 ale berezia.
- IBARRA, O. *Erroi-barko eta Esteri-barko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2000.
- . "Euskaraz idatzirik Asteteren doktrina bat". *Huarte de San Juan. Filología y Didáctica de la Lengua*, 2014, 14 zkia., 237-273 or.
- IDOATE, F. "Los brujos del valle de Araiz". *Príncipe de Viana*, 2001 [1975], 223 zkia., 545-555 or.
- . *La brujería en Navarra y sus documentos*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa, 1978.
- . *Rincones de la historia de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa, 1979 [1956].

- . *La brujería*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1990 [1967]. Navarra: Temas de Cultura Popular 4.
- IRIBARREN, F. *Vocabulario Navarro*. Berrarg. in: Ollaquindia, R. (arg.), Iruñea: Príncipe de Viana, 1984 [1952].
- IRIZAR [Yrizar], P. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional: estudio dialectológico*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1992a.
- . *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional: estudio dialectológico*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1992b.
- . *Morfología del verbo auxiliar labortano: estudio dialectológico*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1997.
- IZETA, M. *Baztango Hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1996.
- KRAJEWSKA, D. "Euskararen sintaxi diakronikorantz". 2017. UPV/EHUko doktorego tesia.
- LAKARRA, J. A. "Euskararen historia eta filologia: arazo zahar bide berri". *ASJU*, 1997, 31:2 zkia., 447-535 or.
- LEKAROZ, G. "Antzinako baztanera: XVIII mendeko prediku argitaragabe bat". *FLV*, 2006, 101 zkia., 69-94 or.
- MADARIAGA, J. *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2014. Etxeberri bilduma 5.
- MAIORA, F. *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*. Egilearen argitalpena, 2011.
- MANTEROLA, J. "Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak". 2015. UPV/EHUko doktorego tesia.
- MCINTOSH, A. et al. *A Linguistic Atlas of Late Mediaeval English*. Aberdeen: Aberdeen University Press, 1986. [Kontsulta: 2017/06/14]. Hemen eskuragarri: <http://www.lel.ed.ac.uk/ihd/elalme/elalme.htm>
- MEILLET, A. *La méthode comparative en linguistique historique*. Oslo: H. Aschehoug, 1925.
- MITXELENA [Michelena], K. *Fonética Histórica Vasca*, Berrarg. in: Lakarra, J. A & I. Arzalluz (arg.). *Obras Completas VI*. ASJUren gehigarriak LX. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011 [1961]. [=FHV]
- . *Textos arcaicos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, 1990 [1964]. ASJUren gehigarriak 11. [=TAV]
- . "Miscelánea filológica vasca. IV". *FLV*, 1979, 33. zkia., 377-406 or.
- . "De onomástica aquitana", Berrarg. in: Lakarra, J. A & I. Arzalluz (arg.). *Obras Completas V. Historia y geografía de la lengua vasca*. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011 [1954]. 197-243 or. ASJUren gehigarriak LVIII.
- . *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Berrarg. in: Lakarra, J. A & I. Arzalluz (arg.). *Obras Completas V. Historia y geografía de la lengua vasca*. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011 [1964]. 1-115 or. ASJUren gehigarriak LVIII.
- . "Apéndice. Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval", Berrarg. in: Lakarra, J. A & I. Arzalluz (arg.). *Obras Completas IX. Onomástica*. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011 [1969]. 502-529 or. ASJUren gehigarriak LXII.
- ; SARASOLA, I. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-2005. [=OEH]
- MONTEANO, P. J. *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Pamiela, 2017.
- MOUNOLE, C. "Alineazio aldaketak euskararen diakronian". In: Fernández, B & Albizu, P. & Etxepare, R. (arg.). *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*. Bilbo: UPV/EHU, 2010. 151-169. or. ASJUren gehigarriak LIII.
- OIHENART, A.; ALTUNA, P. & MUJICA, J. A. (arg.). *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003. Iker 15.
- ONDARRA, F. "Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi". *FLV*, 1982, 40 zkia., 387-402 or.
- . "Apeo de Baztán (1726-1727)". *CEEN*, 1984, 44 zkia., 5-47 or.
- . "José Matias Elizalde (1776-1856), Urdazubiko monastegiko azken abatearen predikua". *ASJU*, 1993, 27:2 zkia., 575-611 or.

- PAGOLA, R. M. et al. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera-1*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995.
- PAUL, J. "El aquelarre, una invención afortunada". *Jerónimo de Uztaiz*, 2008, 23-24 zkiak., 9-40 or.
- REGUERO, U. "Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi-nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz". In: Fernández, B. & P. Salaburu (arg.). *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatje, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 2015. 587-598 or.
- . "Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak". 2017. UPV/EHuko doktorego tesia.
- RETA, A. *El habla de la zona de Eslava (Navarra)*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa, 1976.
- SALABERRI ZARATIEGI, P. *Euskal deiturategia: patronimia*. Bilbo: UEU, 2003.
- SALABURU, P. "Baztango euskalkiaz: Elizondoko doktrina bat". *ASJU*, 1986, 20 zkia., 817-844 or.
- . "Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat". *ASJU*, 1987, 21 zkia., 453-473 or.
- ; LAKAR, M. *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, 2005.
- SANTAZILIA, E. "Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari". *FLV*, 2015, 119 zkia., 109-146 or.
- ; ZULOAGA, E. "Zer (ez) dakigun Iruñean egiten zen euskarari buruz". In: Azkona, I. & R. Jimeno (arg.). *Iruñeko historia: Hiriaren ibilbidea historian barna*. Iruñea: Pamiela, 2018, 475-505 or.
- SARASOLA, I. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos". *ASJU*, 1983, 17 zkia., 69-212 or. [= ConTAV]
- SATRUSTEGI [Satrústegui], J. M. "Cuatro promesas matrimoniales inéditas, en euskera del s. XVI". *FLV*, 1992, 59 zkia., 55-70 or.
- SCHNEIDER, E. W. "Investigating Variation and Change in Written Documents". In: Chambers, J. K., P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.). *The Handbook of Language Variation and Change*. Australia: Blackwell, 2003. 67-96 or.
- TREBIÑO, I. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAE, 2001.
- URGELL, B. "Para la historia del sustantivo verbal en vasco". In: Lakarra, J. A. & J. I. Hualde (arg.). *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R.L. Trask – R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritzaz historikoaz*. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2006. 921-948 or.
- URKIXO [Urquijo], J. *El refranero vasco: los refranes de Garibay*. Donostia: Martin, Mena & co, 1919.
- ULIBARRI, K. "Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara". In: Gómez, R. et al. (arg.). *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 2013. 511-532 or.
- USUNARIZ [Usunáriz], J. M. "La caza de brujas en la Navarra moderna (siglos XVI-XVII)". In: Usunáriz [Usunáriz], J. M. (koord.), *Akelarre: la caza de brujas en el Pirineo (siglos XIII-XIX)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012. 306-350 or. *RIEV* 9. ale berezia.
- ZABALA [Zavala], A. *Ezkondu bearreko bertsoak*. Tolosa: Auspoa, 1985.
- ZELAIETA, E. *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2008.
- ZIERBIDE [Ciérvide], R. "Léxico vasco en la navarra romance". *FLV*, 1979, 33 zkia., 515-528 or.
- ZUAZO, K. *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania, 2010.
- ZUBELDIA, L. "'Omen'en zalantzak argitu nahian". *Euskera*, 2009, 54:2 zkia., 843-883 or.